

Lorea Agirre: «Emakume eta euskal hiztun izanda, eremu eder bat dugu borrokatzeko»



ataria

2019-10-11
1.124. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus



ataria
argazki lehiaketa

Udako
argazki lehiaketa

Bozkatu hemen
Igandea azken eguna



Bi lagunentzako asteburu bateko egonaldia KURTZIA Landetxearen eskutik.

www.kurtzia.com 946840607 • 616945662 • Kurtziaga auzoa, 11 - 48288 ISPASTER (Bizkaia)

Epaimahaiaren saria



Lau lagunentzako bazkari bat Inazio Urruzola txakolindegian

inaziourruzola.eus • 658 734 471 | 605 758 572
Arana Bailara, 18, 20494 Alkiza

ataria.eus-eko erabiltzaileen saria



Zumardia elkarteak eskainitako bi neguko eski ikastaro zozkatuko dira.

<https://www.zumardia.eus/>
688 726 213 \ info@zumardia.eus

atarikide-en saria

Itxuraz

Bagoaz oinez, hoditeria berritzeko lanek birrinduta dauzkaten espaloitan zehar, plastikozko zinta hesiek mugatutako tokitik, arrakalak ez zapaltzearekin kontuz. Santiago zahar egoitza paretik pasatzean, atari osoan zabalduta dituzten kartel eta pankartek jo digute begia, grebako deialdiak estaltzen du eraikinaren fatxada edo aurrealdea. «Ez da itxura», esan dit ondoan doanak, buruarekin ezezko keinua errepikatuz, eraikinari begira. Noski, ez omen du ondo ematen adineko jendea eserita egoten den atari horrek karteletz josita, zikin itxura ematen omen dio egoitza osoari.

Nik, espaloiko lanek eragindako zuloei begira, ezin izan dut ulertu zergatik egiten zaigun hain itsusia protesta, zergatik iruditzen zaigun aldarri bat zikina, zergatik «ez den itxura» manifestatzea eta aldez ez dagoen arazorik jendea itotzen duten lan baldintza batzuk iraunarazteko. Mexikon hormak eta monumentuak margotzeagatik salatu dituzten ahizpez gogoratu naiz, erakutsi digutelako gehiago asaldatzen gaituela gizon ezagunen baten brontzezko irudia zikintzeak, neska ezezagun baten haragizko gorpuk baino. Eta Ekuadorko senideekin berdin gertatuko dela jabetu naiz, herrialde osoa pobretu duen erabaki bat baino larragoa egiten zaigulako indigena talde batek errepidea suz eta barrikadaz itxi izana errepresio indarrei.

Pankarta atzeko arazoari begiratu ordez pankartak ematen duen itxuraz ari bagara, kosta behar zaigu itxuraz bizitzen

Ez delako itxura desordena publikoa sortzea, ordena soziala aldatzeko bada ere. Ze itxurak zainduz gero, ikusten denez, zilegi da biolentzia: gogoratu bestela, errefuxiatuak erreskatatzeko prest zegoen Aita Mari itsasontziari «jendea sorosteko baimena» ukatzen zion aginduz (hori bai, itxurak ondo gordez, DIN A-4 zuri eta lodi batean, tinta distiratsuz helarazia). Eta medioek desitxuraketa hori sustatzen dute, hezkuntzako grebalariek haurren etorkizuna jokoan jartzen dutela salatuz, edo adineko horien atariak pankartaz josia zergatik egon behar duen galdetuz. Askoz garrantzitsuagoa delako haur edo adineko horientzat gurasoen edo seme-alaben eguneroko lan

erritmoan ez eragitea, edo manifestazio baten irudi «ezegokia» saihestea, taxuzko zerbitzua bermatuko lieken baldintza duinak eskaintzea baino.

Ez bitez lerrook erabili edozein protesta ekintzaren albo-kalteak arintzeko, ez baita helburua edozer justifikatzea. Baina pankarta atzeko arazoari begiratu ordez pankartak ematen duen itxuraz ari bagara, kosta behar zaigu itxuraz bizitzen. Eta pasealeku birrindu bateko lanak epe luzera ondo funtzionatuko duen hoditeria baterako beharrezko ikusten ditugun moduan, lan horiek albo-kalteak ezinbesteko

kotzat dauzkagun bezala, eta kale berrituaren emaitzari harro begiratzen diogun eran, gustatuko litzaidake justizia sozialerako bide den lan hauekin ere jarrera hori hartuko bagenu. Are, umeei makina-hondeatzaileko gidariak nola, miretsi behar genituzke zerbitzu minimoak betetzen ari diren zaintzaile horiek; pentsiodunak ere ez daudelako hoditeria berritzeko lanei begira: horiek ere protestara atera behar izan baitute. Eta ez da itxura.



**OIHANA IGUARAN
BARANDIARAN**
IKERLARIETA
BERTSOLARIA

03

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 304346 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txojarre

Tolosaldeko gizarte eragileak



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Albartzeketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Itzea Urkizu



Xarles Iturbe, Olatz Peon eta Joxe Mendizabal, Casino eraikinaren atzeko aldean. ITZEA URKIZU ARSUAGA

04 Onddo eta perretxikoek Zumardi Txikia hartuko dute

Hamargarren Mikologika aurkeztu du Casino elkarteak; munduko errekor bat ezartzeko saiakera izango da tartean.

Itzea Urkizu Arsuaga

Elkartearen 125. urteurrenaren aitzakian berreskuratutako festa, erabat egonkortu da udazken tolosarren kultura, gastronomia eta aisialdi agendan, eta Casinok aurkeztu du X. Mikologikako egitarau osoa. Urteroko moduan, betikoaren eta berrikuntzaren arteko saltsa dastatu ahal izango dute herritarrek, eta xehetasun guztiak eman dituzte, Joxe Mendizabal Casinoko kideak, Olatz Peon Tolosako alkateak eta Xarles Iturbe Casinoko lehendakariak.

Perretxiko eta onddoekiko zaletasuna eraberritzeko eta gazteengana hurbiltzeko saiakera azpimarratu nahi izan du, Olatz Peon alkateak. Bide horretan, azaldu du udalaren lan estrategikoekin bat egiten duen egitasmoak, besteak beste, lehen sektorearen bueltako hitzordua delako.

Hari berari tiraz, Xarles Iturbek memoria egin nahi izan du, eta nabarmendu du «oso pozik» daudela 2009an berreskuratutako Mikologikaren ibilbideagatik: «Boluntario askoren lanari esker lortu dugu proiektua sendotzea eta, lan handia sortzen digun arren, asko gozatzen dugu egun horietan».

Azken hamar urteotan, Casinoko antolatzaileak saiatu dira Mikologikaren muina hainbat dimentsiotara zabaltzen, eta horiek guztiak erdigunean jarri nahi izan ditu Xarlesekin: «Dimentsio gastronomikoa, zientifikoa eta pedagogikoa du, eta aurtan ere saiatu gara esparru horietara iristen».

250 kilo txanpinoi

Udazken loreen bueltan antolatutako hitzorduek lau eguneko egitaraua osatu izan dute azken urteotan eta, alde horretatik, aurtengoak ez du aldaketarik izango, hamargarrena izanagatik.

Horrela, asteazken iluntzetik larunbatera bitarteko gozamina izango dute perretxiko zaleek. Zientzia mikologikoak hartuko du aurtengo hitzor-

du berezi edo exotikoenetako bat, Carlos Rojo de Blas baso ingeniari eta mikologian adituak Senegalgo mikologiari buruzko hitzaldia eskainiko baitu, elkartearen.

Perretxiko eta onddoak usaimenaren eta dastamenaren erresumako kide baldin badira ere, Mikologikak erakutsi du, udazken loreak begietatik ere sartzen direla. Aurtan, laugarren Txanpi On Fest antolatuko dute, publiko gazte eta ez hain gazteari begira, eta 2019ko hitzordu bereziena izango da, gainerakoei errespetuz: Zumardi Txikia hartuko du festak eta, edari eta janari postuez gain, zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izango da, 18:30etik aurrera. Eguraldi kaskarra egingo balu, Zerkausira aldatuko luke-te.

Azkenik, larunbatean, saltsan egin-dako munduko txanpinoi kazola handiena prestatzen saiatuko dira, Trianguloan. 250 kilo txanpinoi, 40 litro olio eta 40 ardo botila beharko dituzte, besteak beste, eta 2,5 metroko ontzia baliatuko dute, goizaldeko bostetatik aurrera, gutzia prestatzeko.

MIKOLOGIKA 2019, EGITARAU

URRIAREN 16A, ASTEAZKENA

19:00. Sonia Tapia eta Xabier Martinez sukaldarien eskutik, perretxikoetan oinarritutako sukaldaritzako tailerra izango da, Casinon, elkartekide eta laguntzaileentzat.

URRIAREN 17A, OSTEGUNA

20:00. Carlos Rojo de Blas baso ingeniari eta mikologia adituaren hitzaldia, Casinon elkarteko lehenengo solairuan: *Setas entre chimpancés. Un estudio micológico en Senegal* (Perretxikoak txinpantze artean. Ikerketa mikologiko bat Senegalen).

URRIAREN 18AN, OSTIRALA

09:00. Tolosako ikastetxeetako DBH 1ko ikasleek Aralarera irteera egingo dute, perretxikoak biltzeko. Arratsaldean, Aranzadiko kideen laguntzaz, bildutakoa sailkatzen ikasiko dute, kultur etxean.
18:30. Txanpi On Fest Zumardi Handian. Janari postuak edo food-truck-ak, edaria eta zuzeneko musika izango dira: Noa Voll Damn & The Hell Drinkers, eta Andoni Ollokiegi bakarlaria.

URRIAREN 19A, LARUNBATA

05:00. Munduan sekula prestatutako txanpinoi kazola handiena saltsan egiten saiatuko dira, eta eguerdian amaituko dute.
12:00. Mikologika azoka, Trianguloan. Tolosaldeko eta Goierriko jatetxe eta elkarte zenbaitek postuak izango dituzte, eta onddo eta perretxikoekin prestatutako pintxoak egingo dituzte.
20:30. Mikologika amaierako afari sorpresa izango da, eta lekua ere isilpean izango da, eguna iritsi arte.
www.mikologika.org atarian izena eman daiteke afarirako, 40 euroren truke.

'Janet-en titia' eskainiko du, gaur, Ertza konpainiak

Asier Zabaletaren zuzendaritzapean, hainbat dantza diziplina eta antzerkia uztartuko dituzte

Erreakzioa

Janet Jacksonek bere emanaldi batean bularra erakutsi izana abiapuntutzat hartu dute, Ertza konpainiako kideek, *Janet-en titia* emanaldia osatzeko. Gaur eskainiko dute, Leidor aretoan, 20:30ean, eta sarrera eskura daitezke internet bidez, edo leihatilan bertan.

Jacksonen irudia nazioartean zabaldu zen, eta epaitegietara ere iritsi zen. Horrela, hainbat dantza diziplina eta antzerkia uztartuz, Asier Zabaletak gidatutako Ertza konpainiak kritika soziala egiteko baliatuko du ikuskizuna, aurreiritziak plazaratuz, eta gizarteak bere inguruko errealitatea eraiki

egiten duela erakutsiz. Horretarako, hainbat tresna baliatuko dituzte, beren adierazpen artistikoaz gain: iritzi subjektiboak, batetik, eta datu estatistikoak ere bai, benetakoak zein interesaren arabera erabiliak.

Janet-en titia ikuskizunean ariko dira, Maria Andres, Thiago Luiz Almeida, Caio Henrique de Souza, Denis Martinez eta Jhana Beat dantzariak.

Kantik zikloko bigarren emanaldia, bihar

Joan den astean aurkeztu eta abiarazi zuen, Hodeiertz abesbatzak, III. Kantik zikloa. Lehen saioa joan den urriaren 5ean izan zen, eta bihar bigarren *Requiem*-a eskainiko dute.

Kasu honetan, John Rutterren *Requiem* eskainiko dute, 20:15etik aurrera, San Frantzisko elizan, eta hiruko elkarlana izango da: Hodeiertz, Arimaz orkestra eta Academia 1830 abesbatza.

Furgobaratza ikastaroa, neguko barazki exotikoekin

Ingurumena. Tolosako baratze parkean ikastaroa izango da, datorren astelehenean, urriak 14. 18:00etatik 19:30era bitarte, neguko barazki exotikoen inguruan ariko dira, eta antolatzaileek barazkiak oparituko dizkiete ikastaroan parte hartzen duten guztiei. Tolosako Udalaren eta Kutxa Ekogunearen elkarlanetik sortutako baratzea parkea Iurrea-mendiko muinoan dago, egoitzaren atarian.

Haurren aurkako abusuei buruzko hitzaldia

Gizartea. Zu ta Nik pobreziaren aurkako jardunaldiak antolatu ditu, eta datorren astelehenean izango da lehenengo saioa. Pilar Polo Vicky Bernadet fundazioko psikologoa haurtzaroko abusu sexualeri buruz ariko da, horiek gizarte arazotzat hartuz, gazteleraz. Saioa kultur etxeko Topagunean izango da, 11:15ean hasi eta 14:15 bitarte. Aste osoan izango dira beste-lako saioak.



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

«GURASOEI ESATERA AUSARTZEN EZ DIREN GAUZAK KONTATZEN DIZKIDATE»

Eneritz Maiz Etxarri Amezketa

Ostiralean ireki zituen ateak Amezketa-ko Gaztelekuak. Izaskun Urrestarazu da bertako suspertzailea, eta uztaila bitartean ateak zabalik izango ditu.

Suspertzailea zara. Zein da zure egitekhoa?

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gaztematika izeneko sistematik gatoz. Espainiar estatuan eta Euskal Herria mailan ere sistema bakarra dela esango nuke. Haur, nerabe, gazte eta helduak babes-ten dituen sistema da, eta bertan zerbitzu ezberdinak daude: Haurtxokoa, gaztelekuak eta PSZ. Gu PSZ gara, hau da, parte hartzea sustatzeko zerbitzu bat gara. 4.000 biztanletik beherako herri txikientzat dago bideratuta, eta Amezketa horietako bat da. PSZ-ren barruan bi paper daude: teknikaria eta hezitzailea. Ni hezitzailea eta teknikaria naiz aldi berean. Teknikari lana egiten dut goizetan, eta hezitzailea naiz arratsaldetan.

Eta zeintzuk dira zuen helburuak?

PSZ-k esaten duen moduan parte hartzea sustatzeko zerbitzua denez, gazteak gaztelekura etorriko dira, eta ondo pasako dute. Beraien arteko erlazioa landuko da, euskara eta herria landuko da, baina parte hartzea sustatzeko helburuarekin, helbururik nagusia herriaren parte hartzea da. Nerabe, haur edo gazte aktiboak izatea nahi da herriarentzat.

Amezketa herri txikia da. Haurrek ondo erantzuten dute?

Bai. Desiratzen egoten dira. Gure adin tarte DBHetik Batxilergora bitartekoa da, hau da, 12 eta 18 urte bitarteko gazteak. LHtik datozenak sartzeko gogoz egoten dira, eta zerbitzuan dabil- tzanek behintzat oso ondo erantzuten dute. Egunerokotasunean nerabeak etortzen dira, eta beraien parte hartzea izugarrizkoa da. Batzuetan ni ere ez naiz iristen etortzen diren guztiengana. Beraz, esan daiteke Amezketa-ko gaztelekuko erabiltzaileen parte hartzea oso ona dela.

Noiztik zaude edo noiztik dago

IZASKUN URRESTARAZU

GAZTELEKUKO SUSPERTZAILEA

Amezketa egiten du lan ibartarrak; adin ezberdinekoekin aritzen da, eta gazteen arteko harremana «altxortzat» du.



Gaztelekua Amezketa?

2012an ireki zen. Gu ez gara udaletxe-ko langileak, azpikontrataturako en- presa gara, Urnietan dagoen Kalekka. Hasiera-hasieratik Kalekka dauka zerbitzu hau, eta lau hezitzaile pasa gara denbora tarte honetan, eta nik bi urte daramatzat hemen lanean.

Esan duzunez haurrak Gazteleku- ra sartzeko gogoz egoten dira.

Askotan, eta batik bat uda partean iza- ten da, behean egoten dira itxaroten. Desiratzen egoten dira nik igotzeko esateko, eta azken ordu erdian esan izan diet igotzeko. Beraientzat hel- duen gunek bat da, eta izugarria da nola egoten diren zain. Erreferentziazko gunek bat dela esango nuke.

Zein da zure egunerokoa?

Hilabete hasieran horman egutegi bat jartzen dugu, eta beraiek egin nahi di- tuzten gauzak zerrendatzen dituzte. Iaz, esaterako, karta jokoetako txapel- ketak izan ziren. Herrian Tximitxurri txapelketa dute, beraien joko bat. Eta kartak ez baziren, sukaldaritza. Sukal-

daritzaren kasuan, egin nahi dutena beraiek begiratu behar dute, zein di- ren beharrezko osagaiak, eta bakoitze- tik zenbat behar duten kalkulatzeko dute. Apuntatu, eta batera joaten gara erosketak egitera, edo beste batzuetan bakarrik uzten diet. Autonomoak dira, eta badute adina badakitela zer nahi duten egin eta zer ez. Beraiek jarritako araua da, eta badakite: beraiek lan egi- ten badute, beraiek jaten dute. Eta su- kaldean aritzen ez badira, behintzat garbitu egin behar dute.

Zein egunetan zaudete?

Astelehenetik ostiralera gaude, eta iaz, larunbat batzuetan ere irekitzen hasi ginen. Beraiekin adosten da zein la- runbat nahi dituzten. Aurten horretan hasteko intentzioa badugu, eta ea zer ateratzen den.

Denentzat irekia da?

Hemen irekia da. Herri txiki bat da, eta adin tarte murriztua izanda ez daude nerabe asko. Ez dute ordutegi bat, eta irekia da. Eskolan opor egu- nak dituztenean eskaintza bereziak

egiten dira, eta abuztua eta iraila itxita egoten da.

Arauk beraiekin lantzen dira?

Oso ondo dakizkitez arauak zeintzuk diren, minimoak behintzat. Baina ikasturtea aurrera doan heinean muga eta arau batzuk ezartzen dira. Arau berriak jartzen dira, eta beraiekin adostzen dira.

Zer da gehien eskatzen dutena?

Sukaldaritza, eta lasai egon nahi dute. Presio asko jasotzen dute eskolatik, lan pila bat dituzte eta azterketak. Film bat ikusi edota hitz egitea nahi dute, askatu egin nahi dute. Uste dut entzuten dieten pertsona erreferente bat dutela hemen, eta entzuteaz gain beraien arazoak bideratzen laguntzen diena. Askotan, azterketa garaian, liburutegi bat bilakatzen da, eta partikularreko irakaslea bihurtzen naiz. Gorabehera asko izaten dira azterketengatik. Lasaitasuna behar dute, eta nik ez diet presiorik jartzen.

Zurekin ireki eta dituzten kezka edo arazoak partekatzen dituzte.

Bai, eta nik ere asko zirikatzen ditut. Bi urte egin ditut, eta asko ezagutzen ditut. Nerabeak transmititzeko oso irekiak dira, eta badakizu noiz dauden gaizki eta noiz dauden ondo. Batzuk irekiak dira eta beste batzuk itxiak. Irekiek guztia botatzen dute, eta itxiei tiraka aritzen naiz ateratzeko eta askatzeko. Askotan gurasoei esatera ausartzen ez diren gauzak dira, eta guztiei laguntzen saiatzen naiz. Psikologiako lan pixka bat egitea ere tokatzen zait.

Nerabeak eta teknologia berriak. Zer esango zenuke?

Teknologia puntan dago, eta gu egokitu behar gara teknologiara, eta askotan beraiek erakusten didate. Baina hemen mugikorra bakarrik erabiltzen dute, eta gehienez musika entzuteko da, eta ez nuke esango, hemen, asko erabiltzen dutenik. Harremanak dituzte beraien artean, eta askatasun bat sentitzen dute hemen. Tolosarekin aldea bada; hemen dagoen plaza giroarekin ez dut hori sumatzen, eta horrela izaten jarraitzea gustatuko litzaidake.

Harreman irekiak dituzte?

Denak denekin dituzte harremanak, eta nahastuta ibiltzen dira. Beti esan izan dut Amezketan lan egiten dudaretik, hori dela eskertzen dudana, eta altxor bat da. Helduagoa denak lagun moduan gazteagoarekin du harremana, eta elkar zaintzen dira.



Atzo aurkeztu zuten igandean izango den XXII. Azoka Bereziko egitaraua. E. MAIZ

Pottoken gainean dator azoka

Zizurkilen igandean egingo dute XXII. Azoka Berezia; berrikuntzetako bat pottoken erakusketa izango da

E. Maiz

Zizurkilen prest dute egun osoko festa izango den XXII. Azoka Berezia. Zizurkilgo herrigunean egiten den azoka, herriko nekazarien lana agerian jartzeko helburuz egiten hasi zirela ekarri du gogora Iker Urruzola alkateak, eta eskerrak eman dizkie guztia antolatzen lan egiten duten boluntario guztiei.

Aurten, Hernandorena kalean jarri ohi dituzten janari postuak goizez bakarrik egongo dira 10:30etik 14:30era. Hamabost postu izango dira, eta horietatik, bost herritarrek jarriko dituzte. Hala ere, Intxaurre frontoiaren barruan egongo dira beste zenbait janari postu, artisautza postuekin batera. Kasu honetan, 25 postu izango dira artisauena, eta lau herritarrenak izango dira. Hauek 10:30etik 14:30era eta 16:30etik 19:00etara bitartean egongo dira bisitarien zain.

Igandean, 10:30ean izango da azokaren irekiera, eta haurrek ere beraien txokoa izango dute, artisautzako tailer ezberdinekin, puzgarrieekin eta potto-

kekin. Besteak beste, papera egiten ikasi ahal izango dute.

14:30ean, bazkari herrikoia egingo dute Zimiterioan, eta oraindik, txartelak erosteko aukera dago Iriarte eta Egarrri tabernetan. Geratzen direnak, egunean bertan Iriarte jatetxean erosi ahal izango dira.

Bazkal ostean, 18:30ean, Gipuzkoako Harri Txapelketa jokatu da, eta jarraian, eta aurten lehen aldiz, txakolin dastaketa egingo da eguna bukatzeko. Gipuzkoako hamar upategiatako txakolinak izango dira.

Gipuzkoako Pottokazaleak

Toki berezia izango dute pottokek aurtengoan. Pottoken erakusketa egingo da goizean, eta horrez gain, pottoken gainean ibiltzeko aukera izango dute ume zein gaztetxoek, goiz eta arratsalde. Aitor Iraeta Pottokazal elkarteak kidearentzat: «Pottokak ezagutarazteko erakusleho bikaina iruditu zaigu, eta gizarteari pottokak berreskuratzeko zein lan egiten dugun erakusteko». Panel informatiboak eta esku orriak jarriko dituzte jendeak pottoken inguruan gehiago jakin dezan.

Urtero moduan, herrigunera igotzeko doako autobusak jarri dituzte, eta azokara joan nahi dutenei garraio publikoa erabiltzeko deia egin diete.

BASOKO JANGAIK EUSKAL JAIAN

Anoetan euskal nortasuna hauspotu, jakintza eta tradizioak ezagutarazi eta herriko baserritarrei plaza eskaintzeko eguna egingo dute igandean; Basoko jakiak hizpide hartuta gaur bertan hasiko dira ekitaldiak

Jon Miranda

Hamabigarren aldia da Anoetan Euskal Jaia antolatzen dutela eta bigarren urtetik gai bat hartzen dute urtero lantzeko. Horrek lanketa berezitua egiteko aukera eskaintzen die antolatzaileei eta urteroko ekimena ezberdin egiten du. Elikaduraren inguruko gaiak landu izan dituzte, baina baita gai immaterialak ere, mitologia edo ahoz-kotasuna bezalakoak.

Otsailean aukeratu zuten aurtengo Euskal Jaia basoko jangaien inguruan antolatzea: «Ertz asko ditu basoak eta zehazki bertatik lortu ditzakegun elikagaietan jarri nahi dugu arreta. Gaztainak eta perretxikoak etortzen zaizkigu aurrea burura, baina hor daude landare jangarri asko, modu basatian hazten direnak». Igandean azokaren erdian jarriko duten postua ezkuraren inguruan antolatuko dute, esate baterako. «Garai batean ezkurra jaten zuen jendea gutxietsi egiten zuten, eskolako umeak esate baterako barregarri uzten zituzten, hura animalien jangaia zela esanez. Horregatik, isiltzen joan da jakintza hori eta ez da belaunaldi berrietara pasa».

Goiake baserrikoekin jarri dira harremanetan batzorde antolatzaileko kideak eta haien eskutik iazko ezkurra jaso dute. Errezilgo baserri batean ezkur irina egin eta irin hori baliatuko dute igandeko plazaren erdian jarriko duten postu «bizian». Krepeak egingo dituzte irinarekin eta marmeladarekin, konpotarekin edota osin tortillarekin beteko dituzte.

Igandean, 10:00etatik 14:00etara

egongo dira azokako postuak zabalik, baina basoko jangaien inguruko lanketa ez da Euskal Jai egunera bakarrik mugatuko. Gaur arratsaldean, gaztaina jatea egingo dute plazan eta bihar, mendi irteera abiatuko da plazatik 10:00etan (*ikusitako egitaraua 26. orrian*). Bertan bildutakoarekin dekoratuko dute azoka eta lanketa borobiltzeko, igande eguerdian pilotalekuan egingo duten bazkariko menua ere berezia izango da: onddo nahaskia, basurde gisatua, arroza barazkiekin eta jogurta.

Aurten, lehenengo aldiz, patxaran lehiaketa antolatu dute: «Iaztik eginda daukaten patxarana ekarri ahal izango dute herritarrek, 11:00etan herriko plazara. Oroigarri bat prestatu dugu eta urtero eskuz esku pasatzea da gure asmoa. Etxean patxarana egiteko ohitura indartu nahi dugu, eta noski, bazkalondan lehiaketara aurkeztutakoak probatuko ditugu».

Urteekin begirada fintzen joan zaiela aitortu dute antolatzaileek: «Ikusten dugu badagoela joera orokor bat azokak folklorizatzeko. Ez ditugu bere horretan postuak ikusgai jarri nahi, jendeari erosketak egiteko gonbita luzatzen diegu eta elikagai edo produktu bakoitzeko postu bana ekartzen dugu. Mugatu egin dugu kopurua 22ra». Herriko Barrundi, Argindegi, Etxeberri eta Sarobe baserrietako produktu freskoak izango dira eta elikagai eta artisautza postu gehiago ere izango dira, Euskal Herriko txoko guztietatik etorritakoak.

Izan ere, baserritarren lana bistartzeaz gainera, euskal nortasuna aldarrikatzeko helburua ere badu Euskal Jaiak. Antolatzaileek, baserritar jantziekin gerturatzea eskatu dute.



Anoetako eta Zaldibiako alkateak eta biharko ekitaldiaren antolatzaileak

XALBADOR GARMEN

Iaz hil zen Anoetan, jaiotzez zaldibiarra zen euskaltzalea; bihar 18:00etan, Anoetako plazan egingo diote omenaldia

J.M.

Zaldibia eta Anoetako herriek elkarlanean antolatu dute ekitaldia, «bi herri hauetan urte luzez, eskuza-baltasun osoz, musika eta euskal kantua irakatsiz, herritarrek euskal kulturaren heziz, elkarbizitzari ekarri dion aberastasunagatik». Anoetan Euskal Jaiaren bueltan antolatu duten egitarauaren barruan kokatu dute omenaldia eta aurkezpen agerraldian izan dira, besteak beste, Pello Estanga bertako alkatea eta Eztitxu Mujika Zaldibiakoa, Garmendia ezagutu zuten beste hainbat anoetar eta zaldibiarrekin batera.

Bihar, 18:00etan Anoetako plazan abiatuko den omenaldi ekitaldia, jaialdi formatuan antolatu dute. «Nafarroako ttuntturroak izango dira, txalapartariak, Zaldibia eta Anoetako dantzariak, Tolosako Udaberri dantza taldekoak, abesbatzako kideak, txistulariak, Loatzo musika eskolako eta Anoetako Herri Ikastolako ikasleak... arratsalde zoragarri eta magikoa bizitzeko aukera izango da».

Garmendia zenaren ibilbidearen



Platzailleak omenaldia aurkezten. J.M.

NDIARI GORAZARRE

zertzelada batzuk emango dira bihar eta egin zituen lanen berri ematearekin batera, euskal kulturaren barruan izan zuen garrantzia ikusaraziko da, «antzerkigintzari egindako ekarpena-gatik eta, tradizioari eutsiz, euskara modernizatzeari bizitza osoan lotu izanagatik».

Zaldibian jaio arren bederatzi urte zituela etorri zen Tolosako Sakramentinetara eta bere lagunek nabarmendu dutenez gazte-gaztetatik antzematen zitzaion zein izango ziren bere bi pasio handiak: musika eta euskara. Besteak beste sakramentinoekin ikasi zuen musika eta pianoa jotzen eta

ikastetxeko organista izan zen. Felix Galdona apaiz sakramentinoekin batera sortu zuen 1957an Tolosako Uda-berri dantza taldea.

Bere jaioterrian, Zaldibian, abesbatza sortu zuen 1968an eta haurrentzako musika klaseak antolatu zituen. «Herrian, eta herritarrekin, sortutako musika sustatu zuen beti, zegoen tokian zegoela», aipatu dute omenaldia-aren antolatzaileek. 1977an Anoetara ezkondu zenez geroztik bertako elizan organoa jotzen zuen, esate baterako. Anoetako Herri Ikastolarekin batera herriko helduen abesbatza sortu zuen eta zuzendari jardun zuen urte askoan. Eguberrietan, Santa Ageda egunez eta San Joan gauean biltzen ziren abestera. Kantu kide izan zituenetako asko, bihar, Anoetako plazan izango dira.

Euskaralari sutsua

Garmendiak beti izan zuen euskara aztertzeko grina eta 1968ko Arantzazuko Biltzarrean, euskara batuaren deklinabideari buruzko txostena aurkeztu zuen, dagoeneko euskaltzain urgazle zela. Donostian, Filologia ikasketak egin ondoren, euskara irakasle jardun zuen, besteak beste, guraso eta irakasleentzat, Tolosako Laskorain ikastolan.

Euskara zuzentzaile bezala egin zuen bere ibilbide profesionalaren parte handiena, 70eko hamarkada amaieran Eusko Kontseilu Gorenean aurrena eta *Egin* egunkarian ondoren, 1977an sortu zutenetik Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz itxi zuten arte. 21 urtez euskara arduradun izan zen euskal kazetan.

50eko hamarkadan Erroman Teologia ikasketak egin ondoren Euskal Herria itzuli eta 1962an Maulera bidali zuten bizitzera, «kultura abertzaleari gehiegi gerturatzen ari zitzaiola iritzi baitzioten orduko apaizek». Zuberoako hiriburuan, ordea, euskal antzerkia berritzeko mugimendua sustatu zuen. *Historia triste bat* antzerki lana idatzi zuen 1964an eta Ondarroako Lore Jokoetako antzerki saileko lehen saria irabazi zuen. «Iskanbila sortu zuen obra hark: apaiz gazte batek idatzia bazen ere, ordura arte euskal antzerkian jorratu ez ziren gaiak lantzen baitzitu, suizidioa eta prostituzioa besteren artean».

Antzerki lan horri esker egin zen ezagun Garmendia garaiko euskaltzaleen eta literaturazaleen artean. Gero- itzulpen lan asko egin zituen, besteak beste, Albert Camusen *Gizon zuzenak* (1967), Antoine de Saint Exuperyren *Printze txikia* (1970) eta Gabriel Garcia Markezen *Heriotza iragarritako baten kronika* (1982). Omenaldiaren antolatzaileek iragarri dutenez, *Printze txikia* obraren zati batzuk ere antzeztuko dira bihar.

2018ko azaroaren 14an hil zen Xalbador Garmendia. Ia urtebetera horrela hitz egin diote lagunek, biharko ekitaldia iragartzeko esku orrian: «Batua nahi zenuen euskara; eta batua, euskalduna eta burujabea, Euskal Herria. Horrela hartu zenituen ezarritako le-geari aurre egitearen arriskuak». Anoetako eta Zaldibiako udalen eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso dute omenaldia antolatzeko. «Euskaldun izaten jarraitzeko lagungarri izango da omenaldia».

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenara 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Helburua «partidaz partida joatea» dela dio Jokin Altunak

Pilotari amezketarrak Peio Etxeberriaren aurka jokatu du Lau eta Erdiko ligaxkako lehen partida astelehenean

Imanol Garcia Landa

Datorren astelehenean hasiko du Jokin Altuna amezketarrak bere bidea aurtengo Lau eta Erdiko Txapelketan, final-laurdenetako ligaxkan. «Helburua partidaz partida joatea da, eta partida guztietan, ahal dela, erregularra izatea. Partida bat galdu behar bada ere, bukaeraraino borrokatzea, ahal den tanto gehienak egiteko», esan du Altunak. «Hala ere, esan bezala, orain asteleheneko partida daukat buruan. Horrekin nahikoa lan badut».

Peio Etxeberriaren aurka jokatu du Altunak: «Etortzen zen aurkaria etorrita ere, banekien aurkari arriskutsua izango zela. Nik beti esaten dut garrantzia handiagoa ematen diodala gu nola gauden eta egun horretan nola egongo garen». Azkenean bakoitzak berea begiratu beharra duela gaineratu du: «Nire kezka handiena nire joko onena ateratzea da. Badakit Peiok maila ona duela, azken garaian horrela ari da, gero eta hobeto ari da jokatzen pilotan, baina nik neurea egin behar dut eta horrela aukerak izango ditut irabazteko».



Jokin Altuna, aurtengo San Fermin Torneoko Lau eta Erdiko Txapelketan. JOSU ARTUTXA

Artola eta Etxeberriak astelehenean Beotibarren jokaturako partida gaur egun lau eta erdian jokatzen diren partiden estilokoa izan zela zehaztu du Altunak: «Biek erritmo handia jarri zuten. Denbora asko ez da izaten pilota-kada batetik bestera, eta tanto gogorrrak asko egon ziren. Astelehen honetako ere erritmo handikoa izango da, eta ikusi egin beharko da zein gailentzen den. Aurrena erasotzea garrantzitsua izango da». Fisikoki ondo dagoela dio amezketarrak: «Udan partida dezentetik jokatu ditut, baina uda bukaerara ondo iritsi naiz. Aste honetan ari naiz prestatzen asteleheneko partida. Ondo sentitzen naiz, aitzakiarik gabe, eta gogoz partida iristeko».

Altunak, beraz, astelehenean du partida, Tolosako Beotibar frontoian. Jaialdia 16:30ean hasiko da eta bere partida bigarrena izango da. ATARIA Irratiak zuzenean eskainiko du partidaren kontakizuna. Erika Jaka lizartarrak gaur jokatu du ligaxkako lehen partida, Victorren aurka, Azpeitian. 22:00etan hasiko da jaialdia eta berea bigarren partida izango da. Bestalde, Iñaki Artola alegiarrak Lasoren aurka jokatu du ligaxkako lehen partida, bihar, Altsasun. 18:00etan hasiko da norgehiagoka hori. Azkenik, promozio mailan, Peña II.a pilotari tolosarrak Darioren aurka Avilako Crespos herrian jokatu du, igandean, 12:00etan hasita. Ligaxkako bigarren partida izango da.

ZUZENEAN

**Altuna III
Vs
Peio Etxeberria**

**Urriak 14, astelehena
16:30etik aurrera
zuzeneko irratsaioa
Tolosako Beotibar
pilotalekutik.**



**ataria
irratia**

107.6 fm
www.ataria.eus

Kortajarena bigarren, Davila seigarren

Erredakzioa Zizurkil

Aurreko asteburuan jokatu zen Espainiako 17 urtez azpikoen txapelketa, Molins de Rein herrian. Danok Danena Halterofilia taldeko Jon Kepa Kortajarena eta Aynabel Davila izan ziren bertan lehiatzen.

Taldetik azaldu dutenez, Kortajarena «oso maila onean» aritu zen «txapelketa bikaina» eginez eta «ondo me-

rezita» bigarrena izan zen. Egindako sei altxaldiak balekoak izan ziren eta bere marka hobetzea ere lortu zuen; «beraz ezin gehiago eskatu, zuen guttia eman baitzuen», esan dute. Txapelketan bere gorputz pisua 52 kilokoa izan zen eta 55 kiloko mailan parte hartu zuen. Arrankadan 70 kilo altxa zituen eta bi denboratan, berriz, 90 kilo. Bere aldetik, Davilak seigarren postua eskuratu zuen.



UDAZKEN JOKOEK BADITUZTE IRABAZLEAK

Tolosako Iturriza Elkartearen jokoetan, ondorengoak dira irabazleak: musean, 4 erregetara, Antonio Iztueta eta Juan Bautista Aranzabe; musean 8 erregetara, Angel Izaguirre eta Felix Antolin; tutean, Antonio Iztueta eta Leandro Uranga; punttoan, Sebastian Hernandez eta Felix Cañas; txintxonean, Juan Bautista Aranzabe; eta tokan, Demetrio Gomez. **ATARIA**

Gipuzkoako Harri Handien Txapelketa, Zizurkilen

Zizurkil. Gipuzkoako Harri Handien Txapelketa Zizurkilen jokatu da, igandean, 18:30ean hasita. Pilotalekuan Xabier Aranburu *Guzta*, Jokin Eizmendi, Aimar Gallarraga, Aimar Irigoien eta Jon Unanue *Goenatxo III.a* ariko dira lehian. Lau harrirekin bi minutuko lana egin beharko dute. Txapela Aimar Irigoien eta Jokin Eizmendiren artean egon daiteke, nahiz eta errezildarra izango den faborito nagusia.

Xabi Alonsori erdira jaitsi diote kartzela zigor eskaera

Ibarra. Xabi Alonso futbolari ohiak epaiketa izan du Madrilén, ustez ogasunari bi milioi euroko iruzurra egiteagatik, 2010, 2011 eta 2012 urteetan, Real Madril taldeko jokalaria zenean. Fiskaltzak bost urteko espetxe zigorra eta bost milioi euroko zigorra eskatzen zituen hasiera batean, baina epaiketaren azken egunean erdira jaitsi du espetxe zigorra, bi urte eta erdira, hain justu. Epaiketaren lehen egunaren ondoren, Alonsok berak egindako adierazpenetan, bere errugabetasuna defendatu zuen, eta Fiskaltzarekin ez zegoela azken orduko akordiorik zehaztu zuen. Epaiaren zain geratu da orain auzia. Gaur egun Realaren bigarren taldeko entrenatzailea da Xabi Alonso.

TALDE NAGUSIAK

LAUBURU IBARRA

Patatas Gomez Sala

Areto futbol. Bigarren B Maila.

Urriak 12, larunbata, 18:30ean.

Ibarrako Belabietako kiroldegian.

Escuelas Ciudad Guadalajara

LASKORAIN

Areto futbol. Bigarren B Maila.

Urriak 12, larunbata, 19:00etan.

Guadalajarako kiroldegian.

Logroño B

TOLOSA CF

Futbola. 1. Maila Nazionala.

Urriak 13, igandea, 11:00etan.

Logroño Pradol Viejo zelaian.

TOLOSA CF

Portugalete

Futbola. Hirugarren Maila.

Urriak 12, larunbata, 16:30ean.

Tolosako Berazubi zelaian.

Anaitasuna

TOLOSA CF ESKUBALOIA

Eskubaloia. 1. Maila Nazionala.

Urriak 13, igandea, 12:00etan.

Iruñeko Anaitasuna kiroldegian.

**BILLABONA FUTBOL
KIROL ELKARTEA**

ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA

Larunbata, 12 - 16:00
Jubenilen ohorezko maila
**BILLABONA FKE
KOSTKAS K.E.**

Igandea, 13 - 16:30
Jubenilen 1. maila
**BILLABONA FKE
EUSKALDUNA S.D.**



Herritarrak euskarara gerturatzeko 'Auzoko' saioak martxan dira

'Auzoko' egitasmoaren aurkezpen saioa Ibarako kultur etxean, urriaren 17an, 19:00etan egingo dute

Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun saila, Ibarako Udala eta Euskaltzaleen Topagunearen arteko lankidetzatik *Auzoko* egitasmoa sortzen da. Herriko komunikazio eta kohesiorako hizkuntza euskarara izateko bidean, herrira iritsi berriei edota euskaratik urrun bizi diren herritarrei hizkuntzara gerturatzeko aukera eskaintzen die egitasmoak. Helburu horrekin, ordu eta erdi inguruko saio irekiak egiten dira astero.

Herritarrak, aniztasuna eta euskara oinarrian dituen egitasmoa da *Auzoko*. Herrian dugun hizkuntza aniztasuna aintzat hartuz, euskarara lehen pausoak eman nahi dituzten herritarrak eta bide horretan laguntzeko prest dauden euskal hiztunak elkartzen dira saioetan. Ariketa erraz eta jolasen bidez, jatorri ezberdinetako herritarren arteko harremanak sustatu eta euskarazko oinarrizko hitz eta esamoldeak lantzen dira.

Auzotarrek parte hartzeko deia

Herrira etorri berriek edota orain arte euskararekin harremanik izan ez dutenek bide hori egin dezaten, garrantzitsua da herriko euskal hiztunen parte-hartze aktiboa. *Auzoko* egitasmoaren saioetan bietatik behar baita: euskarara gerturatzeko gogoia duten herritarrak (*Auzokideak*) eta horiei bidean laguntzeko prest daudenak (*Auzotarrak*).

Aurkezpen saioa Ibarako kultur etxeko aretoan izango da, urriaren 17a, osteguna arratsaldeko 19:00tan. Gerturatu eta parte-hartzeko gonbidapena luzatzen zaio herritar orori.



Aurkezpena eta dinamikak
Amaieran luntxa egingo da



2019/10/17
19:00
Kultur etxea
(Euskal Herria kalea 44)
661 745 875
ibarrazukoko@gmail.com

ANTOLATZAILEAK



SUSTATZAILEAK



BABESLEAK





Gorde zure tesia hodeian edo DNA kate batean

Aurrekoan, nire tesiaren nondik norakoak azaltzearen zailtasunei buruz aritu nintzaizuen, zailtasun *linguistikoak* bereziki. Hala ere, tesiko lehen urte honetan zailtasun *fisikoak* ere izan ditut, duela hilabete batzuk nire ordenagailu maiteak aurre-abisurik gabe agur esatea erabaki baitzuen. Eta berarekin batera orain arte egindako lan guztiak ere agur esan zidan... disko gogorrean gordea nuela gogoratu nintzen arte.

Eskerrak! Tesia salbatu da! Baina, kontua ez zen horretan gelditu –akaso karmia izango zen?–, lehengo astean disko gogorra ere galdutzat eman nuen egun pare batez. Ondorioa: tesi amaierara bizirik eta nerbio krisirik gabe iritsi nahi baduzue, gorde zuen datuak kontuz! Eta harrigarriki, informazioa gordetzeko modu berritzaileenak biologiararen alorretik etor daitezke...

Azken urteetan konpainia teknologiko handienek –Microsoft, Google, eta konpainia, auziaren mamia duela ikus dezazuen– DNA jarri dute fokua informazioa gordetzeko metodo modura. Izatez, Wikipedia osoa irudiko tubotxo horretan gordetzea lortu da DNA molekula modura. Harrigarria, ezta? Izan ere, DNAk txinpan-tze edo tomate-landare egiten

gaituzten geneak gordetzeko baino dezente gauza gehiagorako balio du. Eta, silizioan oinarritutako teknologiararen aldean –bai, zuen ordenagailu eta disko gogorrak ere silizioan oinarritzen dira– abantaila ugari ditu. Hala nola, DNA oso konpaktua eta tamaina txikikoa da, izan ere, pentsa gure zelula bakoitzak gure 25.000 geneetako informazioa, bi metro inguruko luzera duena, gorde dezakeela espazio nimiño batean. Beraz, DNAk datu kantitate oso handiak espazio oso txikitik gordetzea ahalbidetuko digu, goiko Wikipedia bezala.

Honez gain, oso egonkorra da. Hain egonkorra zein duela milaka urte desagertutako animalien DNA gaur egunera baldintza onetan iritsi den, eta honi esker animalia hauek ikertu ahal izan ditugun. Imajinatzen al duzue milaka urte eutsi ditzakeen ordenagailurik? Zaila, ezta? Zalantzarik gabe, naturak berak gizakiok baino informazioa gordetzeko sistema askoz egokiagoa sortu du. Beraz, ikus dezagun nola egin zuten Instagrameko argazkiak DNA modura gordetzeko.

Izatez, DNA –azido desoxierribonukleikoa–, izaki bizi guztion informazio genetikoaren gordailua da, eta funtzio zelularrak burutzeko

ezinbesteko proteinak ekoizteko informazioa gordetzen du *gene* deritza-en DNA zatietan. Oinarrian lau nukleotido ezberdinez –Adenina, Guanina, Zitosina eta Timina– osaturik dago, zeinak AGCT letra modura adierazten

Harrigarriki, informazioa gordetzeko modu berritzaileenak biologiararen alorretik etor daitezke

Azken urteetan konpainia teknologiko handienek DNA jarri dute fokua informazioa gordetzeko metodo modura

diren. DNA sekuentzia AGCT letra hauen konbinaziotik sortzen da, letra konbinazio ezberdinek informazio ezberdina kodetzen dutelarik. Gero, DNA sekuentzia osatzen duten nukleotido hauek hirunaka irakurtzen dira, kodoi delakoak osatuz. Kodoi bakoitzak aminoazido ezberdin bat kodeztzen du, eta horrela DNA sekuentzia *hirunaka* irakurtzen goazen neurrian zeluletan aminoazidoak elkar lotzen joaten dira azkenean proteina bat eraiki arte. Beraz, zuen Instagrameko argazkiak DNA modura gordetzea informazioa bit-etatik –0 eta 1–ak– AGCT-tara itzultzea bezain sinplea izan daiteke. Behin gure informazioa DNA sekuentzia modura idatzi dugunean, DNA sintetizatzaile bidez –bai, zerotik hasita DNA sintetizatzen duten aparatua existitzen dira– sekuentzia hori DNA sintetiko modura lor dezakegu, goikoa bezalako tubotxo batean. Pentsa, honelako DNA gramo batean 2.000 disko gogorretan ahalako datu kopurua gorde daiteke! Gainera, nahi adina kopia egin daitezke... Ni bezalako pertsona despistatuentzat ezin hobea, zalantzarik gabe.

Teknologia hau oraindik hastapenetan badago ere, eskaintzen dituen aukerak ikaragarriak dira. Momentuz DNA sintesia motela eta garestia bada ere, teknologia honen garapenak orain arteko datuen biltegitratze eta segurtasuna irauliko du zalantzarik gabe. Beharbada, hemendik gutxira nire tesia etxeko hozkailuan DNA tubotxotan gordeta izango dut... ordenagailu traidore eta disko gogor ikusezinetatik salbu!



ANE AMUNDARAIN
BIOMEDIKUNTZAN
DOKTOREGAIA

«EZ DAGO BESTE LEKURIK AHALDUNTZEKO, MENDERAKUNTZA BAINO»

14

LOREA AGIRRE

'JAKIN' ALDIZKARIKO ZUZENDARIA

‘Euskaltzaletasuna eta feminismoa, ahalduntzeko elkargunea’ hitzaldia eskainiko du, datorren asteartean, Idurre Eskisabelekin batera, Tolosako pleno aretoan; 18:30etik aurrera, azken urteotan bildu eta landutako gogoetak izango dituzte hizpide, menderakuntza guztiek elkar elikatzen dutela plazaratzeko.

Itzea Urkizu Arsuaga

Menderatu izatea dohain bilakatu, eta mundu konplexuago baina horizontago bat aldarrikatzen du Lorea Agirrek (1968), euskara eta feminismoaren ardatzetan dantzan. Esperientzia propioa abiapuntu hartuta, 2014an gogoeta horiek jendaurrean plazaratzeari ekin zioten Idurre Eskisabelek eta biek, eta, orduan *Izan gaitezke feminista, euskaltzale izan gabe?* galderaren bueltan hausnartuz hasitako bidea, entzule askorekin partekatu dute honezkero, eta eskualdea izango dute hurrengo plaza: datorren asteartean Tolosan ariko dira, Galtzaundi euskara taldeak antolatutako *Euskara eta feminismoa: bideguru-*

tzea elkargune hitzaldi zikloko lehen saioan. Oso jantzita ikusten ditu belaunaldi berriak eta, feminismoaren indarraldiari begira, itxaropen betean da Alkizan bizi den beasaindarra, feminista-euskaltzale edo euskaltzale-feminista zubia balizko gizarte aldaketarako giltzatatzat joz.

Zer esango zenioke euskara eta sexu-genero sistema elkar lotzen ez dituen pertsona bati?

Esango nioke, hizkuntza, hizkuntza hautuak, hitz egiteko moduak eta sexu-genero sistema gurutzatu egiten direla, baina ez Euskal Herrian bakarrik: hori mundu guztiko hizkuntza guztietan gertatzen da. Zergatik? Bada, gure gizarteak, hainbat ardatzen artean, baduelako bat oso-oso markatua: sexu-genero sistemaren arabera gizartea antola-



tzea. Gizarteak ikaragarritzko seta du, mutilak mutil izan daitezen, eta neskak neska izan daitezen, eta txiki-txikitatik tematzen gara bereizten, bereizten eta bereizten. Bereizketa hori hitz egiteko moduan ere gertatzen da, eta desberdina da non, nork, zergatik eta zein autoritaterekin hitz egiten duen. Horri gehitu behar zaio, hizkuntza minorizatu bat ere badugula, beste bi hizkuntza hegemonikoren erdian –espainola eta frantsesa–, gutariko askok ingelesa ere nahiko barneratuta dugula, eta, horrez gain, Euskal Herrian beste ehun bat hizkuntza ere bizi direla gaur egun, horietako asko beren lurraldean minorizatuak. Errealitate horretan, hainbat baldintzak eragiten dute euskararen hautua egitea edo ez egitea, eta baldintza horietako bat oso garbia da: sexu-generoa.

Zu zeu noiz hasi zinen euskaldun izateak eta emakume izateak antzekotasunak zituztela ikusten?

Gizartea antolatzen dugun moduaren arabera, bazterreko gunee, espazio, pertsona, diskurtso, leku, funtzio eta lanbi-

deak sortzen ditugu, eta erdian daude beste batzuk. Bada-kigu eremu publikoa eta pribatua bereizten direla, orduan, esan dezakegu: nortzuk daude pribatuan eta nortzuk publikoan? Eremu pribatuan, gehienbat eta historikoki, emakumeok egon gara, eta publikoan gizonak. Publikoan zer jokatzen da, zer dago? Publikoan dago boterea, publikoan dago ekonomia, publikoan dago indarra, publikoan dago garrantzitsua dena. Eta, pribatuan zer dago? Pribatuan dago etxea, umeak, janaria, zaintzak. Galde diezaiokegu geure buruari, guk benetan zeri ematen diogun garrantzia: egunero porru-patatak prestatzeari, edo lan ordaindua eremu publikoan egiteari. Argi dago. Orain, egin dezagun galdera hizkuntzari begira: euskara non jarriko genuke, publikoan ala pribatuan? Nik lepoa jartzen dut: pribatuan dago. Herri honetan zein hizkuntzatan hartzen dira erabaki politiko, sozial eta ekonomiko garrantzitsu guztiak? Nork hartzen ditu? Euskaraz hartzen dira? Emakumeek hartzen al dituzte?

Bide horretan, ni praktika euskaldunagatik ohartu nintzen horretaz guztiaz. Beti bereizten dugu praktikarena, izan ere, hemen euskalduna den jende asko dago, baina, horrek eragozpena sortzen dienean, hizkuntzaz aldatzen dute eta, beraz, pertsona linguistikoki hegemoniko bilakatzeko dira. Ez daukate gatazkarik, eta esango dute oso ondo bizi direla. Konfliktua beti sortzen da zure euskalduntasuna praktikara eramaten duzunean eta, finean, konturatzen zara, emakume bezala eta euskaldun bezala, bazterrekoa zarela. Horrek inplikazio handiak ditu: ekonomikoak, sinbolikoak, estatusarenak, boterearenak, hitzarenak, erabakiguneetan egotearenak, norbere bizi aurreikuspenak. Gauza asko dago jokoan eta, ikusten da, emakume eta euskaldun izanda gizarteak zein zerumuga jartzen dizun, eta gizon eta hizkuntza hegemonikoko izanda, gizarteak zein zerumuga jartzen dizun. Batean borroka gehiago egin beharko da, eta bestean autopista zabalik izango duzu.

Bazterreko izaera horiez eta beste zenbait kontuz ariko zara Idurre Eskisabelekin, eta honezkero iragarri dute, Susa argitaletxearen 'Lisipe' bildumako hurrengo liburuak ere zuen sinadurak izango dituela. Zein ideia nagusi jasoko dituzue?

Abiapuntua da, sexu-genero eta hegemonia-minorizazio sistemek bazterrekotasunak sortzen dituztela, eta bazterrekotasunak sortzeko modua berbera dela beti: naturalizazioa. Hau feminismoak asko landu duen gai bat da, eta euskal hiztun gisa ere asko balio diguna, konturatzen baikara, naturalizazioaren teoriak nola egin nahi gaituen bazterreko. Diskurtso oso bat martxan jartzen da gizartearen, esateko, emakumeak nolakoak garen: goxoak, zaintzara emanak, boterea eta indarkeria gustatzen ez zaigunak,... Eta euskarari buruz ere gauza berak esaten dira: euskara txikia da, babeserako da, txokorako eta etxerako, ederra da baina ez du balio ideia handiak formulatzeko... Naturalizazio prozesua berbera da bi kasuetan.

Feminismoak erakutsi digu, naturalizazio prozesu hori eraikitako zerbait dela, gizartearen barreneko multzo bat menperatuta edukitzeko. Gure gizarteak funtziona dezan, norbaitek egin behar du ordaindu gabeko lana. Norbaitek behar du erabakimenik ez izan, beste norbaitek izan dezan; gehiegizko demokrazia inori ez zaigu gustatzen. Eta, naturalizazioa bi kasuetan berdina izateak baditu ideia interesgarri zenbait. Batetik: gizarteak jaiotzen garen momentutik eraikitzen baldin bagaitu, guk geuk sinesten dugu esaten diguten gezurra. Horri indarkeria sinbolikoa deitzen zaio. Eta, bigarrenik: eraikiak baldin bagara, deseraikiak izan gaitezke, guk nahi dugun, ahal dugun edo erabakitzen dugun ideia horren arabera. Euskalduntasunak eta euskalgintzak hauxe egin du azken 50 urteotan, nahiz eta horrela formulatuta ez izan.

Bere burua berreraiki?

Duela 60 urte, Txillardegi eta Joxe Azurmendik euskaldun izateko modu berri bat formulatu zuten, ordura arte




Eskafandra liburu bildumak (Elkar-Jakin) 2016. urteko giltzarri euskaratzeko helburuz. Pentsamendu finkoak elkartu ziren, Lorea Agirre, Idurre Eskisabel, Amaia Agirre, eta beste hainbat idazle. Honako bost lanak argitaratuz. Aurten, Durango beste lan bat plazaratuko dute, dokumental bat

sekula entzun gabea. Ordura arte, euskaldun izatea zen arraza, zortzi abizenak eta bertan jaiotzea, baina horiek esan zuten ezetz, euskalduna dela euskaraz dakiena, alegia: euskara ikasi egin daiteke. Ordura arte pentsatzen zen ezin zela ikasi eta, gainera, ez zuela zentzurik euskara eskola batean irakasteak. Hori izan zen euskalduntasunaren eraikitze berri bat ekarri zuena, eta eskubide batzuk aldarrikatu, komunitate baten aldeko lana egiten hasi, eta kontzeptu berri batzuk sortu zituen. Beraz, kontzientziak ere egiten gaitu, eta hori uztargarria da feminismoaren ahalduztzearekin.

Feminismoa errealitatea esplikatzen duen gai da, eta hori da bere abantaila handietako bat. Gai da niri, nire etxeko sukaldari, zer gertatzen zaidan azaltzeko. Errealitate hori ulertu nahi duen edonork uler dezake, bere buruaren kontzientzia hartzen badu: ikusten badu noiz den menderatu eta noiz menderatzaile. Feminismoak horregatik blaitzen zaitu: zeure buruaren esplikazio bat ematen dizulako. Uste dut euskalgintzak bertute hori izan duela, baina agian galdu egin duela.

Zergatik?

Oso konbentzita gaudelako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskararen normalizazioaz; orain ez dugu nor-



urtean ekin zion bere ibilbideari, feminismoaren azken hiru mendeetako hainbat lan feministaren esparruan euskarak zuen hutsunea betetzeko kezkari erantzun nahian agoia Gurrutxaga, Ainara Lasa, Maialen Lujanbio, Eider Rodriguez eta Anari Alberdi, ko Azokan, pentsamendu feministarentzat eta filosofiarentzat ezinbestekoa den lagun duela: *Bigarren sexua* (Simone de Beauvoir).

malizazioa behar, orain askatasuna behar dugu. Bakoi-tzak egin dezala nahi duena. Baina, noski, askatasuna benetakoa izango bada, eskubide guztiak errespetatu behar dira, eta nik zerbaiterako eskubidea baldin badut, parekoak obligazioa du nire eskubide hori bete dadin.

Euskaldunek ahaldundu egin behar dute, beraz.

Gure ustez, interesgarria izan liteke euskalgintzak feminismoaren formulazio zenbait ekartzea, herritarren eskubideen planora. Demokraziaren parte bat euskara eta euskal hiztunak tratatzeko moduetan jokutzen da. Ezagutu berri dugu Nafarroako Auzitegi Nagusiaren erabakia ere: euskara inposatzen ari garela Nafarroan.

Esan duzun guztiaren berreste bat.

Bai, eta etengabea da. Nahikoa dira 48 ordu hedabideei begira, naturalizazio prozesu horiek erabat lanean ari direla ikusteko. Etengabe emakumeak zer diren eta euskara zer den esaten ari direla ikusteko. Eta, horrek funtzionatzen ez duen kasuetan, inposizioaren eta feminazismoaren diskurtsoa baliatzen dute. Inposatzailea naiz ala minorizatua naiz? Minorizazioa utzi eta nire eskubideak aldarrikatzen ditudan aldiro, inposatzaile bat izango naiz. Eta hori da esklabotasunari ere esan izan zaiona, askatzen hasi izan di-

«Konfliktoa beti sortzen da, zure euskalduntasuna praktikara eramaten duzunean; eta, finean, konturatzen zara, emakume bezala eta euskaldun bezala, bazterrekoa zarela. Horrek inplikazio handiak ditu»

«Norbaitek behar du ahotsik eta erabakimenik ez izan, beste norbaitek izan dezan; gehiegizko demokrazia inori ez zaigu gustatzen»

renean. Munduak horrela funtzionatzen du, eta guk ere sarritan horrela funtzionatzen dugu. Baina, zortea dugu, emakume izendatu izanda eta euskal hiztun izanda, badugulako eremu eder bat borrokatzeko. Maria Merce Marçal poeta kataluniarrak, *Divisa* izeneko poeman, esaten du hiru aldiz zanpatua dela, eta zer dohain duen hiru horiek eduki izanagatik, horrek bizitza bakarrean hiru aldiz erbelde izateko aukera eskaini diolako. Menderakuntzak makurkeriak izaten dira, baina, aldi berean, ez dago beste lekurik ahalduentzeko, menderakuntza baino.

Dohain hori nola balia liteke aurrerapausoak emateko?

Angela Davisek eta feminismo beltzak teoriara ekarri zuten feminismo interseksionala, eta oso ideia baliagarri bat du, euskalgintzatik praktikara eramateko. 1977-1978an, feminismo korrante nagusia mendebaldekoa zen, Europakoa eta AEBetako, eta feminista beltzek esan zuten haiek guztiak emakume zuriak zirela, klase ertainekoak edo goragokoak, eta, gainera, heterosexuak. Beraiek, berri, beltzak ziren, auzo pobre eta baztertuetakoa eta, gainera, horietako asko heterosexuala ez den joera sexualetakoak. Horrela, esan zuten: «Orduan, gu ez gara feministak? Bai, gu feministak gara, baina, kontua da, feminismoak zerbait egin behar duela, emakume guztiak barneratuko baditu». Modu horretan, emakume afroamerikarrek mahai gainean jarri zuten, ez dela kasualitatea emakume izatea, afroamerikarra izatea eta klase sozial baxukoak izatea. Menderakuntzak elkar indartzen dira.

Suzanne Romaine soziolinguistak, esaterako, Afrikako emakumeekin lan egiten du, eta berak esaten du munduko biztanleen bi heren pobreak direla, eta bi heren horien %80 emakumeak direla. Eta, gainera, emakume pobreen %80 ere, hizkuntza minorizatu bateko hiztun direla. Hori ere kasualitatea da? Ez. Eta horrek kontrako teoria ere badu, hau da: zuria izanda, gizona izanda, hizkuntza hegemonikoko hiztuna izanda, klase sozial ertainekoa izanda eta heterosexuala izanda munduaren jabe izateko loteria eros dezakezu.

Horrenbestez, feminismoak lortu behar duena da, menderakuntza guztiak izendatzea, eta bakoitzari elkargune



bat jartzea, interseksionalitateak aukera eman baitu, errealitatea konplexutasunetik begiratzeko. Feminismoak ezin du itsu izan arrazakeriaren, borroka ekonomikoen, edo beste mila borrokaren aurrean. Orduan, koherentea da euskalgintza itsu egotea? Bada, segur aski, ezin dugu gure borroka aurrera eramane, horiek kontuan hartu gabe.

Mugimendu feministak menderakuntzen elkargune horiek barneratuta dituela ulertuz, nola ikusten duzu ahizpatasuna Euskal Herrian?

Nik uste dut ahizpatasuna lantzen ari dela. Ahizpatasuna da konplexutasunari beldurrik ez izatea eta, ondorioz, gatazkak egongo direla onartzea. Horregatik da feminismoa anitza, eskuzabala, inklusiboa eta holistikoa. Hori esanda kontraesanak egon daitezkeela? Bai, baina onartu egin behar da kontraesanak existitzen direla, eta barnean ditugula; batzuetan, kontraesanei helduta egin behar dugula aurrera.

Feminismoaren barruan badira urte luzetako eztabaidak, hainbat feminismo motak oso modu kontrajarrian ikusten dituzten gaiak. Baina hori gauza bat da, eta beste gauza bat da ahizpatasuna ez praktikatzea. Eta hori da gakoa: gatazkaren errealitatea ikustea eta gatazka beste modu batzuetara kudeatzeko bideak asmatzea, gatazkan norbere burua non dagoen kokatuz, eta adostasunetan aurrera eginez.



Emakume talde, asanblada eta abarretan, ideia feminista askorekin ados dauden emakumeen artean, hizkuntza ohiturek talka egiten dute. Nola kudeatu behar da hori?

Mugimendu feminista oso anitza da, hainbat erakunde, talde eta antolakuntza daude, baina euskararekiko eta hizkuntza ez hegemonikoekiko sentsibilitatea, oro har, bada. Nahiago nuke gizarteko beste mila egitasmotan halako sentsibilitatea balego. Hori ikusiko da, adibidez, azaroko jardunaldi feministetan. Sistema oso bat jarri da martxan, hizkuntza nagusia eta komuna euskara izan dadin, eta, aldi berean, gainontzeko hizkuntza eskubideak berma daitezzen. Azken finean, elkartasun sistema bat da.

Egia da, euskaltzale eta feminista bezala, feminismoari kritika egin izan diodala, hizkuntz praktiken inguruan. Baina, oro har, uste dut feminismoak ulertzen duela, hizkuntzarena menderakuntza bat gehiago dela: izan zaitezkeela militante feminista bat, baina hizkuntza minorizatua menderatzen aritu, eta alderantziz. Azaroaren 13ko *Mugimendu feminista eta hizkuntza praktikak* mahai ingurua horretarako antolatu da: esateko, hortik ezinbesteko aliantza politikak atera behar direlako.

Honi lotuta, aipatu nahiko nuke ez direla gatazka gehiago sortzen azken boladako migratzaileekin, duela 60 urteko migratzaileekin baino; momentu honetan, emakume

«Feminismoa errealitatea esplikatzeke gai da, eta hori da bere abantaila handietako bat. Gai da niri, nire etxeko sukaldean, zer gertatzen zaidan azaltzeko (...) Feminismoak horregatik blaitzen zaitu: zeure buruaren esplikazio bat ematen dizulako»

«Ahizpatasuna da konplexutasunari beldurrik ez izatea eta, ondorioz, gatazkak egongo direla onartzea. Horregatik da feminismoa anitza, eskuzabala, inklusiboa eta holistikoa»

migratzaile horiek ez dira arazo bat euskararentzat. Arazoa gehiago da euskaldunon erdalduntasuna eta, areago, oraindik ere euskaldun ez direnena. Baina feminismo euskaltzalearen aldarria da, emakume guztiei feminismoarako eskubidea bezala, euskararako eskubidea ere ematea.

Esango zenuke euskal komunitateak idealizatuta izan dituela euskara eta euskaltzaleasuna, balizko jarrera matxistei dago-kienez?

Ez dakit idealizatuta izan dituen, baina horri ez zaio asko begiratu. Gure praktikak eta gure gizarte funtzionamendua erabat patriarkalak dira, beraz, euskaltzalea ere, izan emakume deitua edo gizon deitua, oso patriarkala da. Hori arazo bat da, baina, albiste ona da, minorizazioaz konturatzen garenean, hizkuntza-mina identifikatzeko gai garenean, urrats bat eman dugula, gai izango baikara beste min batzuk identifikatzeko, nahiz eta guk ez sentitu. Gizonezko euskaltzaleak leku on batean daude, sexu-genero sistemaren minak edo emakumeok bizi ditugun minak ulertzeko.

Dena den, beste kontu bat da, zer den euskaldun izatea edo zer den euskalduntasuna: ea zeintzuk diren prestigioa ematen diegun euskalduntasunak eraikitze moduak. Alegia, guretzat euskaldun eredugarri bat al da, Barakaldon jaiotako gazte bat, euskaraz Tolosaldekook bezala egiten ez duena? Eta, horri segika, arnasmune deitzen ditugun herrietako euskaldunak, «horiek bai jatorrak eta sanoak» esaten diegun horiek, zer dira? Euskaldun jatorra gizon bat da? Lepoa jokatuko nuke baietz; sanoa gizon bat da. Bartzuetan, guk zer idealizatzen dugun ere begiratu behar da; begiratu behar da gure idealizazioek zenbateraino duten begirada kritikoa generoarekiko, eta emakumeekiko zer suposatzen duen eredu horrek. Eta horrek, irudi bezala, zein ondorio dituen gure seme-alabengan; gure semeek hori izan nahi ote duten, eta berdinzalea ote den edo ez den. Nik zalantza handiak ditut, praktika zehatzak aparte

utzita. Uste dut galdera horiek interesgarriak direla, eguneroko egiten dugulako herrigintza; eta hor adi egotea interesgarria da.

Eskafandra bildumako lehen liburua Angela Davisen ‘Emakumea, arraza eta klasea’ izan zen eta, orduz geroztik, pentsamendu feministako hainbat mugari argitaratu dituzue euskaraz. Euskal gizartea jantzi al da jakintza horietan?

Euskaraz hutsune handiak ditugu, bai gure pentsamendu propioa sortzen, eta baita munduko pentsamenduak ezagutu eta gure galbahetik pasatuta euskaraz eskaintzen ere. Munduko pentsamendu horietan, faltan-faltan dugun eremuetako bat feminismoa da, eta hori izan zen, duela lau urte, gure asmoa: guretzako garrantzitsuak diren liburuak euskarara ekartzea, azaltzeko, zer den Euskal Herrian euskal

«Gure praktikak eta gure gizarte funtzionamendua erabat patriarkalak dira, beraz, euskaltzalea ere, izan emakume deitua edo gizon deitua, oso patriarkala da»

«Egia da, euskaltzale eta feminista bezala, feminismoari kritika egin izan diodala, hizkuntz praktiken inguruan. Baina, oro har, uste dut feminismoak ulertzen duela, hizkuntzarena menderakuntza bat gehiago dela»

hiztun eta emakume izatea, zer sortzen duen horrek eta zer egin dezakegun horrekin. Eta hori da Eskafandraren helburua, teoria horiek geure burua esplikatze baliatzea. Bildumako liburu guztiak oso giltzarriak izan dira feminismoan, eta azkena, orain Durangorako dokumental batekin aterako duguna, guretzako benetan liburu garrantzitsua da, ez bakarrik feminismoaren barruan, baizik eta pentsamendu filosofikoaren barruan: Simone de Beauvoir-en *Bigarren sexua*. Liburu fundazional bat da, eta Simone de Beauvoir-ek hor esaten du bere esaldi ezagun hori: «Emakumea ez da jaiotzen, emakumea egin egiten da». Guretzat, hori ideia giltzarri bat da, esateko, euskalduna ez dela jaiotzen, egin egiten dela, bi zentzutan: menperatu gisa eraikitzen gaituztela, baina geure burua egin dezakegula, ahaldunduz.

Jendeak baliatu duen edo estimatu duen? Pentsatu nahi dut baietz. Horrelako bilduma bat orain posible da, bada-goelako giro oso bat eta mugimendu feminista handi bat. Mugimendu feministaren barruan badagoelako euskaltzaleen mugimendu handi bat, eta euskalgintzan badabil-

tzalako feminista asko. Duela hamar urte ez zen posible izango, baina momentu historiko bat iritsi da, eta orain badago hau guztia hartu eta pentsatuko duen jende bat.

Durango eta 'Bigarren sexua' aipatu dituzu; jende asko zain egongo da honezkero. Azokako postuetatik begira, zein da liburu horiek kontsumitzen dituzten irakurleen profila?

Oso irakurle gazteak, 19-22 urte bitarteko neska-mutilak, etorri izan dira liburu horietara, eta hori urte gorria da. Liburu mardulak dira, fisikoki nahiz edukiz. Ez dira irakurtzeko gauza sinpleak, baina ikusi ditugu hiru neska elkarrekin liburu bat erosten, eta horrelako gogo bat sumatu dugu. Oro har, esango nuke, liburu horiek erosten dituztenak euskaltzale feministak edo feminista euskaltzaleak direla; bizitzak sentiarazten dienaren erantzuna, feminismoak eta euskalgintzak elkarrekin emango diela ikusi duen jendea. Beharbada teorizatzen ez dakizu, baina intuitiboki badakizu zerbait, eta horri erantzutera datoz liburu hauek.

Azken urteotan feminismoak hartu duen protagonismoarekin, belaunaldi berriek eskuragarriago di-

tuzte, orain, teoria eta pentsamendu feministak. Apar horren igoera nola bideratu behar dela uste duzu, indarrari eusteko?

Ez dakit. Uste dut mugimendu feministak urte luzetan erakutsi duela, aliantzak eraikitzearen aldeko mugimendu bat dela, konplexua eta ahalik eta horizontalena. Ekitaldi batzuetan masifikatua da, eta bereziki masifikazio horrek asko du autogestio desberdinetatik; bakoitzak erabakitzen du, Martxoaren 8ko greba nondik eta nola egin. Kudeatzeko desberdina eta zaila da, baina ikaragarritzko aberastasuna du, ordu eta deialdi bakarrera ohitutako herria aniztasun horretara bideratzen duelako; hori feminismoak erakutsi du. Beraz, gakoak aniztasuna, aliantzak eta borrokari eustea direla uste dut. Gertatzen diren gauzekiko begirada zolia izatea, eta begirada interseksionala izatea, esan bezala. Nik esperantza handia daukat feminista gazteengan, eta gustatuko litzaidake feminista gazte horiek euskaltzaleatasuna urratsa ematea. Ohartzea, euskaltzale izatea emantzipazio orokor horretan ezinbestekoa dela eta, beraz, alderantziz ere bai: euskaltzaleak ohartzea, genero berdintasunik gabe ez dagoela emantzipaziorik.

ORTO-K
metodoarekin

R.P.S. 175/15 I.L.G.

ezabatu
zure miopia
lo zauden bitartean

Kontsultatu itzazu optikan
kanpainaren ezaugarriak eta
doaneko azterketa bat egingo dizugu.



MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

Ondo ikusi nahi zaitugu
ondo ikus dezazun nahi dugu



GUTUN-AZALETAN JASOTAKO 100 URTE

Urte zailak pasatzea egokitu zaio, baina beti jakin du aurrera egiten Tolosako SAM enpresak. 100 urteek eman dutena herritarrei gerturatzeko erakusketa jarri dute Aranburu jauregian; hilaren 19a bitartean egongo da ikusgai, eta baita urtemugarako egin duten bideoa ere.

Eneritz Maiz Etxarri

Historia luzea duen enpresa da SAM. Tolosako familia askoren bizi iturria izan da, eta garai berrietara egokitzen jakin du. 1919ko abenduaren 22an zabaldu zituen atearak paperrari lotutako enpresak, eta mendeurrena ospatzen ari dira.

Usabalen kokatzen den lantokiko museoa, Tolosako herriari erakusteko helburuarekin, Aranburu jauregira eramanez dute: «Jende asko ari da etortzen, eta oso ondo. Enpresan museoa deitzen diogun gela bat dago, eta bertan daude bilduta erakusketa ikusgai jarri ditugun material pila bat», dio Paula Ostra bertako langileak. 1995ean, Oria ibaiaren ertzetik, enpresak tokiz aldatu behar izan zuen: «Eraikuntza zaharra bota aurretik, langile batzuk, material zaharrak gorde eta klasifikatzeko erabakia hartu zuten, material ugari mimoso zainduz».

100 urte atzera egin, eta papergintza indartsu zegoen. Papelela Española urte batzuk lehenago sortzen da Bilbon, eta bi fabrika zituen Tolosan: «Urte batzuk beranduago, hau da, 1919an, Papelela Españolak sortzen du SAM. Ez du inoiz papera sortzen SAMek, baizik eta, pa-

pera manipulatu egiten du», azpimarratzen du Ostrak. Eta manipulatu horretan, SAMen ezaugarri nagusia gutun-azalak izan dira. «Hasiera-hasieratik egin dira gutun-azalak, libretak eta kontabilitate liburuak. Urteak pasa ahala gauzak gehitzen joan ziren, eta beste batzuk kentzen; hori izan da eboluzioa».

SAM fabrikaz hitz egiterakoan, familien arteko enpresa moduan hitz egin daiteke, hau da, familia bereko kide bat baino gehiagok lan egin du bertan, eta belaunaldi ezberdinak pasa dira. «Gaur egun gaudenon artean ere gertatzen da. Nire kasuan, esaterako, aitona eta amona egin zuten lana. Amonaren ahizpa batek eta nire bi izebek ere bai. Orain lanean ari den langile baten kasuan esaterako, bere aitak eta aitona ere SAMen egin zuten lana. Abizenak errepikatu egiten dira, eta jende askok egin du lana SAM fabrian», argitu du Ostrak.

500 langile inguruk egiten zuen lan lehen urte haietan. 70. hamarkada aldera, 300-400 inguruk, eta gerora etorriko zen papergintza krisia SAM enpresara. «Papelela Española ere tartean zegoen, eta nik uste dut datuak nahastu egiten direla, baina beti 500 langile inguruz hitz egin izan da», dio bertako langileak.



Emakumea lan mundura sartuz

Tolosako SAM fabrikak emakume askori lan mundura sartzeko aukera eman zion. «Aurreko egun batean, anekdota moduan aritu ziren kontatzen erakusketan, enpresa bertatik, Santa Maria elizara joaten zirela galdeztzera zein emakumek betetzen zituen 14 urte. Jendea behar izaten zuten enpresan, eta lanera eramateko galdetzen zuten. Etxeetara joaten ziren emakumeen bila lanera eramateko», kontatzen du Paula Ostrak. «Egia da, era berean, emakume askok eta askok, behin ezkontzean, lana uzten zutela, baina beste hainbatek jarraitu egin zuten enpresan».

Emakumearen esku lana «ondo» baloratzen zutela dio, eta gaineratzen du, «esku fina goa zutela emakumeek esaten da».

Teknologia berrietara egokitzen jakin du enpresak: «Bai duela 40 urte, 20 edota zortzi urtean jakin du egokitzen, eta horrela ez balitz ez zuen aurrera jarraituko». «Calcosam sortu zutenean berritzaileak izan ziren, gutun-azaletan ere autotsaskorrekin edota silikona tirarekin egiten hasi zirenean berritzaileak izan ziren, eta baita, esaterako, koadernoetan diseinuekin-eta lanean hasi zirenean ere. Zentzu batean berritzaileak izan gara», azpimarratzen du Ostrak.

Garai txarrak bizitzea ere tokatu zaio enpresari. Hasierako urteetan 36ko gerra. Gerora, esaterako, 1982ko

«Eraikuntza zaharra bota aurretik, langile batzuk, material zaharrak gorde eta klasifikatzeko erabakia hartu zuten, material ugari mimoz zainduz»

PAULA OSTRA

uholdeek enpresa harrapatu zuten, barru guztia lokaztuz. «Materiala galdu eta berreskuratu egin behar izan zen, eta gordetzen ditugun lehen eskriturak lokatzarekin zikinduta daude», gogora ekartzen du Ostrak. Garai txarrez hizketan jarraituz: «Papelera Españolaren porrota etorri zen, eta SAM ere talde horren barruan zegoen. Denbora bat egon ziren ez zekitela zer egin, atzera eta aurrera. Krisi oso garrantzitsua izan zen».

Gero etorriko zen leku aldatzea: «Nik uste leku aldaketa ilusioz beteta bizi izan zutela». «Jende batek enpresaren alde egin zuen. Nahiz eta, oraingoak ez duen lehen zenaren antzik. Pabiloia, makineria,... erabat aldatu zen». Baita Tolosa herriaren itxura ere, Oria ibaiaren erretetik enpresa kenduz.

100 urteko ibilbidean krisi ezberdinek harrapatu dute enpresa. Langileak galtzen eta berreskuratzen joango zen: «Azken krisia duela ia hamar bat urte bizitu zuen, eta langile kopurua galtzen du. Gaur egun, 40-45 langile gara».

2013an taldeko beste enpresa batekin fusionatu zen: «Palentziako Pacsa enpresarekin fusionatu zen, eta beraz, esango dugu enpresak bi produkzio gune dituela: bata Tolosan eta bestea Palentzian. Han bai egiten dituzte koadernoak, eta guk Tolosan gutun-azalak egiten ditugu, eta gutun-azal poltsak deitzen ditugunak baino ez ditugu egiten».

Etorkizunari buruz galdetuta, «etorkizuna badu, baina ez lehen zuen bolumenetan. Badakigu gaur egun paperak bizi duen krisia. Nik uste dut gutun-azalak oraindik mantenduko direla, beste bolumen batean, eta guk irauten jakin beharko dugu. Eta saltzen den gutun-azal bakarra gurea izan dadila».

Hauteskunde urtea ari da izaten aurtengoa, eta gutun-azal asko erabiltzen dira. Laguntzen ote duen galdetuta: «Fakturatze aldetik hauteskunde urteak, urte potenteak dira guretzat. Aurten, hasiera batean, maiatzekoak bakarrik zeuden aurreikusita, eta apirilekoak etorri ziren, eta orain, berriz, azaroan izango ditugu. Ondo, baina, lan asko oso denbora gutxian egin beharrekoa da. Gero, urtea luzea da, baina, bai, laguntzen du».

Merezitako ospakizunak

Gutun-azaletatik atera, eta ospatzeko tarteak ere hartu dute langileek, langile ohiekin batera. Irailaren 28an, bazkari bat egin zuten. 170 pertsona inguru elkartu ziren, eta karpa baten babesean SAMen instalazioetan «egun ederra» pasa zuten.

Asteartetik larunbatera Aranburu jauregian erakusketa jarrita dute. Argazkiez gain, lantegiko

material ugari ikusi daiteke, eta nola ez, 100 urteko historian sortu dituzten produktu ezberdinak ere erakusketan daude. Langileren bat edo langile ohien bat erakusketan bertan egoten saiatzen dira, inork galdera edo zalantzarik balu erantzuteko. «Langile ohi pila bat ari da



E. MAIZ

erakusketara gerturatzen, eta beraien istoriak kontatzen dizkizute». Anekdotak pila bat izan dituzte. «Pasa da erakusketatik lau hilabetez lan egin zuenik ere. Beste batzuk beraien gurasoek lan egin zutelako etorri ziren. Gurasoak bertan ezagutu zirela, eta hunkituta zeuden; gero hortik beraiek jaio zirelako», kontatzen du Ostrak.

Badira bizitza oso bat enpresari lotuta eman dutenak: «Oraindik ere badituzte lankideak, 46, 47 edo 45 urte lanean daramatenak. 14 urtetatik lanean dagoen jendea da», gehitzen du Ostrak.

Erakusketa jartzeaz gain, bideo bat egiteko ideia sortu zitzaion. Historia kontatu nahi zuten eta Pablo Dendaluzerekin jarri ziren harremanetan. «Aktore baten bidez SAM zer den eta zer izan den kontatu nahi izan dugu, eta

«Papelera Españolaren porrota etorri zen, eta SAM ere talde horren barruan zegoen. Denbora bat egon ziren ez zekitelaz er egin»

PAULA OSTRÁ

bideoa erakusketan ikusgai jarrita daukagu». Eta argazkiekin, berriz, Joseba Urretabizkaiaren laguntza izan dute. «Oso-oso eskertuta gaude biek, azpimarratu du Ostrak. «Modu bat izan da herriko historia kontatzeko eta ezagutarazteko. Egia da, gaur, jende askok Tolosa gaur egun dagoen moduan ezagutzen duela, eta Oria ertza asko aldatu da». Paula Ostrak «eskerrak» eman nahi izan dizkie bai erakusketa eta baita festa eguna antolatzen lagundu dieten guztiei ere, hau da, lankideei eta

erretiratuei.

Hilaren 19a bitartean aukera izango da erakusketa bisitatuz, bideoa ikusteko. Azken egunean, esan behar da, bisita gidatua egingo dutela enpresaren historiaren gaineko xehetasunak emanez.

TOLOSA

ONENETAN ONENA ERDI-PREZIOAREN ERDI-PREZIOAN

Eta orain...

LEHENENGO
HILA DOAN!

19'9€
/mes



euskaltel

Agenda

OSTIRALA URRIAK 11

ALEGIA

ODOLEMAILEAK

18:30–20:30. Kultur etxean, odol ateratzeak Gipuzkoako Odol Emaileak elkarteak bultzatuta.

ANOETA

EUSKAL JAIA

18:30. I. Krono Igoera Txulotik Isastira. Lehenik eta behin haurren lasterketa (ur depositoraino) eta ondoren helduena. AKTk antolatuta.

20:00. Kilimak taldearen kontzertua eta gaztaina jatea, plazan. *Euskal Jaia*ren inguruko jarduerak.

TOLOSA

ENPLEGUEA

09:00. Tolosaldeko Enplegunea 2019 Lehiberri zentroan.

HITZALDIA

18:30. *Once flores rojas*. Adriana de Arribak bere liburua aurkeztuko du. Doako sarrera. Kultur etxean.

BERAZUBIAUZOKO JAIK

18:00. Txupinazoa.

18:15. Buruhandiak auzoko kaleetan.

19:30. Patata tortilla lehiaketa Tolosa CFko plazan.

19:30. Peru DJ.

21:00. Herri afaria (norberak ekarria).

22:00. Peru DJ.

23:00. Nemux karaokea.

DANTZA EMANALDIA

20:30. *Janet-en Titia*. Leidor antzokian.

KONTZERTUA

22:30. Deafkids. Sarrera: 8 euro. Bonberenean.

LARUNBATA URRIAK 12

ALEGIA

ELKARTASUNEGUNA

13:00. Hasiera ekitaldia, herriko plazan.

Ondoren. Triki poteoa.

14:30. Herri bazkaria. Kantu saioa eta herriko bertsolarien kopia lehiaketa, Bulebarrean.

20:30. Zahagiardoa, Bulebarrean.

22:30. Kontzertuak Gaztetxean: herriko taldea, Dientes de Luna eta Dja.



GARAGARDOZ BUSTITAKO KONTZERTUAK

Larunbatean musikak beteko du Amasa–Villabonako Berdura plaza, eta Beer Toki Fest-ek izango du horren errua. Bertan Mara, Ibai Marin, Maddi, Habi, Anai eta Högändäs taldeen soinuak izango dira. Eta ezin falta artisau garagardoa, festari men eginez. **J.M.**

AMASA-VILLABONA

ELKARTASUN AZOKA

Errota Txiki eta Kaori faktoriak elkarlanean, bigarren eskuko elkartasun azoka antolatuko dute Errota Txikin. Azokan ateratako etekin guztiak Guinean eta Senegalen proiektu ezberdinak bultzatzeko izango da.

11:00. Azokaren irekiera bigarren eskuko jantziak, osagarriak, osagaiak...

13:00. Dama beltzaken ikuskizun akustiko-lirikoa.

BEERTOKI FEST

17:30. Artisau garagardoa eta kontzertuak: Mara, Ibai Marin, Maddi, Habi, Anai eta Högändäs taldeak. Sarrera doan. Berdura plazan.

ANOETA

MENDIIRTEERA ETA OMENALDIA

10:00. Anoetarron arteko baso mendi irteera. Zer ematen zigun eta zer emango digu basoak?

18:30. Xalbador Garmendiari omenaldia. *Euskal Jaia*ren inguruko jarduerak.

TOLOSA

HERRIESKOLAK

10:00. Armiarma sarearen jolasa, atsedena eta hamaiketakoa eta *Autodefentsa* sareen beharraz hausnartzen hitzaldia.

17:00. TNTren eskutik. Kafe tertulia: Zertarako TNT?

SAN ESTEBAN AUZOKO JAIK

11:00. Tolosako XXXII. Herri Krosa.

Ondoren. V. Txiki Krosa.

BERAZUBIAUZOKO JAIK

10:00. Haurrentzako sukaldaritza ikastaroa Botarri erretegiko Txemari Esteban sukaldariaren eskutik.

12:00. Emakumezkoen eta gizonezkoen toka.

14:30. Sukaldaritza tailerreko parte hartzaileentzako bazkaria.

16:00. Entziero txikia auzoko kaleetan zehar.

16:30. Umeentzako jolasak eta lapurretak.

17:30. Txokolate jatea.

19:00. Pintxo-potea patata tortillarekin.

19:00. La Zentral orkestraren lehenengo saioa.

20:45. Danborradako afaria.

22:15. Danborrada auzoko kaleetan.

23:45. Su artifizialak Berazubiko zubitik.

00:00. La Zentral orkestra.

BISITA GIDATU ANTZEZTUAK

11:30. Bisita gidatu antzeztuak haurrentzat Topic-en. Izena emateko, aldeztu aurretik Topic-ekin harremanetan jarri behar da: 943 650 414 edota cit@cittolosa.com.

KANTIK III. AHOTS MUSIKA ZIKLOA

20:15. Cor Academis 1830 (Mallorca), Hodeiertz Abesbatza (Tolosa) eta Arimaz Kamera Orkestra (Tolosa). Sarrera: 10 euro. Murritua: 5 euro. Zuzendariak: Enrique Azurza, Fernando Marina, Kepa Martinez de

Albeniz. Emanaldia: *John Rutter* –en *Requiem*–a. San Frantzisko elizan.

ZIZURKIL

GARAGARDO GAUA

22:00. Herri gunean garagardo gaua.

IGANDEA URRIAK 13

ALEGIA

AGURRA

11:30. Roman Ganzarain Etxeberria.
Languarren, ondoren herriko plazan.

ANOETA

XII. EUSKAL JAIA

09:30. Herriko txistularien kalejira.
10:00–14:00. Baserritar eta artisauen azoka.
12:00. Ekitaldia.
14:00. Herri bazkaria.
Ondoren. Anoetako I. etxeko patxaran lehiaketa.
18:00. Pentatloi desafio bikoteka. Otaegi (Zizurkil) – Errazkin (Tolosa) eta Txapartegi (Aizarna) – Jagoba (Aizarna).
19:00. Orots erromeri taldea eta Anoetako talogileak.

TOLOSA

SAN ESTEBAN AUZOKO JAIK

09:30. Mendi ibilaldia.

BERAZUBIA AUZOKO JAIK

09:00. Tolosako txistularien diana auzoko kaleetan zehar.
10:00. Xake txapelketa (12 urte baino gazteagoentzat).
11:00. Korpus Kristi elizan auzoko hildakoak oroitzeko meza.
11:00. II. Europako Txapela jaurtiketa.
14:30. Paella erraldoia.
16:30. Chuchin Ibañez.
19:30. Areto dantzak Ritmo de Luna taldearekin.
21:00. Txistorra jatea.
22:00. Arratoiaren erretzea.

ZIZURKIL

AZOKA BEREZIA

10:30–14:30/16:30–19:00. Baserriko produktuak eta artisauak. Autobusa doan Bulandegi Bideko errotondan edo Zubiaurretxotik Zizurkil Goiko plazara

egun guztian zehar. Ordutegia: 10:15–15:00 eta 16:30–21:00.

10:30. Azokaren irekiera. Egunean zehar haurrentzat tailerrak, puzgarriak eta pottokak.

14:30. Bazkari herrikoia Zimiterioan. Txartelak salgai Iriarte eta Egarri tabernetan. Prezioa: 15 euro.

18:30. Gipuzkoako Harri Txikien Txapelketa.

Ondoren. Txakolin dastaketa.

ASTELEHENA URRIAK 14

TOLOSA

MOBILIZAZIOAK

10:30. Gipuzkoako erresidentzietako grebalariek martxak antolatu dituzte.

12:00. Jubilatu eta pentsionisten mobilizazioa. Udaletxe aurrean.

POBREZIAREN AURKAKO JARDUNALDIK

11:15. Hitzaldia: *Haurren kontrako sexu-abusuak: gizarte arazo bat*. Hizlaria: Pilar Polo. Vicky Bernadet fundazioko psikologoa (Bartzelona). Kultur etxean.
19:30. Mahai ingurua: *Bakarrik dauden adin txikiko eta gazte atzerritarrak EAEn*. Hizlariak: Ikuspegi (Maddalen Epelde, ikertzaile kolaboratzailea), Kolore guztiak.

FURGOBARATZA

18:00. Neguko barazki exotikoak tailerrarekin. Baratze parkean Furgoaratzazango da.

ERAKUSKETAK

BURATTINIREN MUNDU

MIRESGARRIA

Tolosa. Topic-en ikusgai txotxongilo itallarren erakusketa.

ESKULANTAILERRA

Zizurkil. Zizurkilgo eskulan tailerreko ikasleen erakusketa. Urriaren 15a arte.

KOLLAGERAKUSKETA

Alegia. Kurage kolektiboaren erakusketa, azaroaren 30a arte, Jubilatu-enea tabernan. *Hobeto tximeletak ahoan, hienak bihotzean baino.*

ZINEMA

‘ANTES DE LA QUEMA’

Larunbata (19:30 / 22:30), igandea (22:30).
Leidor aretoa, Tolosa.



‘MIENTRAS DURE LA GUERRA’

Larunbata (19:30),
igandea (19:30) eta
astelehena (21:00).
**Gurea antzokia,
Amasa-Villabona.**



‘PLAYMOBIL FILMA’

Igandea (17:00).
Euskaraz, haurrentzako emanaldia.
**Gurea antzokia,
Amasa-Villabona.**



‘UNA INTIMA CONVICCION’

Igandea (19:30) eta
astelehena (20:30),
ikuslearen eguna
Leidor aretoa, Tolosa.



‘DORA Y LA CIUDAD PERDIDA’

Larunbata (17:00).
Haur zinea.
Leidor aretoa, Tolosa.



Nor ote gure bizi
ohituren biktima?



UNAI MENDIZABAL

Nahiz salatu Estatu
Batua ta Txina
gure kaletan zenbat
ke ta bozina,
tximinietan gora
lainorik haundina...
Nor ote gure bizi
ohituren biktima?
Poloak, Katrina...
pena ta lastima
ez dadin arrima
gure Lurra mima.
Geu aldatu gaitezen
eta ez klima.



Doinua

Zaldi zuriarena

Hitzak

Eskertzen ditut egunero nire
errutinan sartzen diren ezeza-
gun horiek, argazki hutsez edo
ahotsez soilik

ezagutzen ditudan horie-
kek. Eskertzen ditut, eta
ez gutxi, arrotzak zaizki-
dan gaiak parean jartzen
dizkidatenak, eta zer
pentsatua ematen dida-
tenak. Miresten ditut
ezer gutxi esanda ere,
zerbait esaten dutela di-
ruditen horiek - ez, ez
naiz politikariez ari -. Mi-
resten ditut egunero zer-
bait esatekoa duten ho-
riek guztiak, eta gainera,
fin, dotoreziaz eta abileziaz dihardu-
tenak. Maite ditut hizkuntzarekin jo-
lasten dutenak; orain kiribildu, gero
tolestu eta malabarismo mota guztiak
egin ditzaketenak. Maite ditut goiz er-
dian irribarra lapurtzen didatenak,
eta konplize sentiarazten nautenak.



OLATZ
PEÑAGARIKANO
AEK-KO IRAKASLEA

Gustatzen zaizkit itzulinguruka ibil-
tzen direnak, baina esan beharrekoa
ondo biribiltzen dakitenak. Estima-

tzen dut konplikatuaren
saiakera, areago estima-
tzen, orde, soiltasuna.
Gozatzen dut transmiti-
tzen duten horiekin,
emozioak esnatzen dizki-
datenekin..

Esan daiteke, beraz, hi-
tzaren baitan dabiltnan
artista horiek guztiek lilu-
ratzen nautela (zorionez, herri
txiki honetan ez ditugu
gutxi); hasi norbanako
arruntetik eta zutabe-
gile kotsakraturaino.

Hala ere, zer diren gauzak, hara
non datorren kontraesana: askotan
zenbateko balioa ematen diegun hi-
tzei, zenbaterainoko pisua duten...
Eta beste askotan, berriz, zer hutsalak
diren, zer gutxi irauten diguten. Hai-
zeak eraman balitu bezala.

**Esan daiteke, beraz,
hitzaren baitan
dabiltnan artista horiek
guztiekin liluratzen
nautela (zorionez, herri
txiki honetan ez ditugu
gutxi); hasi norbanako
arruntetik eta zutabe-
gile kotsakraturaino**

SONETOA KARLOS LINAZASORO



Aita biltzaile

*Aita biltzaile eta seme hondatzaile.
Herrialde, leku eta etxe orotako
kontua; alegia askotarako
mami, irakaspen moralen sortzaile.*

*Horixe, labur esanda, historia.
Seme zabarrak beti izango dira,
bai eta aita babaloreak ere.*

*Aita bizi guztian lan eta lan,
irabaziak gerorako gordez;
semeak, gordetakoa gorde ordeztu,
den-dena xahutzen du bat-batean.*

*Bietan norena ote erru gorria?
Neronek, semea hormara begira
jarriko nuke, zigortxo andere.*

Kaxiano

Negu Gorriak. Maddi Oihenart. Bad Sound System. Gu Ta Gutarrak. Ez zaitut ezagutzen, baina badakit musika gustatzen zaizula; musika mundu guztiari gustatzen zaiolako. Xabier Lete. Asgarth. Zaldibobo. Izaki Gardenak. Eta eza gutzen ez zaitudan arren, badakit inoiz izan duzula binilo bat, edo kasete bat, CD bat, ordenagailuko karpeta bat edo Spotify-ko zerrenda bat *Euskal Musika* izenarekin. Denok izan baitugu horrela-ko bat. Su Ta Gar. Yogurina Borova. Hertzainak. Aire Ahizpak. Baina behin ere galdetu al diozu zeure buruari zer den euskal musika? Hemendik At. Bizar-dunak. Selektah Kolektiboa. Oskorri. Dolce Tangana. Batzuk diote Euskal Herrian bertan egindakoa dela euskal musika. Ados, orduan: La Oreja de Van Gogh. Alex Ubago. Duncan Dhu.



**JULEN TELLERIA
LOPETEGI**
HIZTUNA

Amaia Romero edo Montero. Baina gustatzen ez bazaigu, beti esan dezakegu euskaraz egindako musika dela euskalduna. Bai? Barricada. Doctor Deseo. Eskorbuto. La Polla Records. Bai ala ez? Izan omen liteke, bestela, euskal sustraiak dituen musika. La Jodedera. The Uski's. Ez dago erabat argi... Lisabo. Zuloak. Unidad Alavesa. Laja eta Landakanda. Ze, musika klasikoa ezagutzen dugu, badakigu zer den jazz musika, edota popa edo punka. Baina, norbere gustuei buruz galdetuta, euskal musika gustatzen zaiela diotenei, zer gustatzen zaie? Nahiadance. Egan. Dut.

Unsain Anaiak. Aizkorak Zorroztu & The Mia Wallace Band. Hiru Truku. Euskal Barrokensemble. Nik, oso garbi daukat; euskal musika ez da musika estilo bat. Baina bada zerbait. Baldin Bada.

**Nik, oso garbi daukat;
euskal musika ez da
musika estilo bat.
Baina bada zerbait.
Baldin Bada.**

EGURALDIA



GAUR

Uda sasoiko eguraldia izango dugu gaurkoan. Hego haizea ibiliko zaigu goizean goizetik eta horrekin tenperatura maximoek dezent egingo dute gora; udazken sasoikoak baina udakoak izango ditugu. Egunekeo erdiko orduetan 25-27 gradutan errendituko dira tenperaturak, beraz, bero egingo du. Zerua garbia goertuko da goizean eta arratsaldeko lehen orduetan, ondoren, hegoaldeko erdi eta goi mailako hodei batzuk sartuko zaizkigu baina ez diote batere trabarik egingo eguzkiari.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

BIHAR

Larunbatean hego haizeak indarra hartuko du eta horrekin hodei gehiago izango ditugu zeruan, erdi eta goi mailakoak, baina ez dute beste ondoriorik ekarriko. Ez du euritarako joerarik hartuko eta eguraldi eguzkitsua izango dugu. Tenperaturak antzeko balioetan mantenduko zaizkigu, beraz, eguraldi bero samarra izango dugu.

ETZI

Tenperaturak are gehiago igoko zaizkigu eta bero handia egingo du, 27-29 gradutara iritsiko dira maximoak. Zeru garbia agertuko zaigu, hodei gutxirekin, eguzkiak beraz, gogotik berotzeko aukera izango du.

ASTELEHENA

Eguraldia aldatzen hasiko zaigu, eze-gonkortzen, goietan aire hotzagoa izango dugu eta eguerditik aurrera zaparradak nagusituko zaizkigu. Arratsalde partean ekaitzak ere izango dira. 23-25 gradu bitarteko tenperatura.

OSTIRALA
11



IGANDEA
13



LARUNBATA
12



ASTELEHENA
14



IRAGARKI LABURRAK



LANESKAINITZA

Zaintza. Adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko norbait behar da. Deitu 666739044ra.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
12:30. Elkarrizketa (Itziar Garate).
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
22:00. Denbora da poligrafo bakarra.
22:30. Onein.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK



URRIAK 11, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoa. Ignacio Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 0128.

URRIAK 12, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoa. Rosalia Morant Barber.
Zabalarretalorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

URRIAK 13, IGANDEA TOLOSA

Egunekoa. Ignacio Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 0128.

URRIAK 14, ASTELEHENA IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24.
Telefonoa: 943 67 32 74.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Azpiroz, L.
Amarotz auzoa, 9.
Tel.: 943 67 5118.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza Eguraldiaren iragarpenera lker ibarluzearen eskutik, agenda, Tolomendi landa garapen agentziaren tarte, errezeten atala Aintzane Artolarekin, Idoia Apaolza psikopedagogoa.
12:00. Entzuteko jaiok Musika tarte.
16:00. Zebrabidea Arroza sareko magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.
20:00. Kantazgora Tolosaldeko musikariaren proposamenekin osatutako musika saioa.
21:00. Mingaina Txulora Erotikari buruzko saioa Jon Imanol Etxaberekin.

LARUNBATA

10:00. Trikiti musika.
18:00. Entzuteko jaiok Musika tarte.

IGANDEA

10:00. Goizeko saioen onena.
14:00. Hari Naizela Bertsolaritzari buruzko saioa, Imanol Artola Felix-ekin.
16:00. Entzuteko jaiok Musika tarte.
18:00. Kantazgora Tolosaldeko musikariaren proposamenekin osatutako musika saioa.
20:00. Entzuteko jaiok Musika tarte.
21:00. Mingaina Txulora Erotikari buruzko saioa Jon Imanol Etxabe sexologoarekin.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza Egunekeo berriak, agenda, asteburuari begirada, Postalak bidaiariaren tarte, gaurkoan Anjel Cuerdorekin, Patxadaz eginiko elkarrizketak.
12:00. Entzuteko jaiok Musika tarte.
16:00. Zebrabidea Arroza sareko magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.

107.6 fm
www.ataria.eus



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.
Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

**Hemen zure
iragarkia joan
daiteke**

publi@ataria.eus

661 678 818

ZORION AGURRAK



Zorionak!

Ioritz (Irura). Gaur 5 urte betetzen dituzu. Zintzoa izaten jarraitu eta muxu potolo asko zuretzako. Etxekoen partetik.



Saridunak

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

**DELTECO GIPUZKOA
BASKET - LEVITEC
HUESCA**

partida ikusteko

Urriak 13, 18:00etan,
Jose Antonio Gasca pabiloian.

• Zigor Leunda
(Amasa-Villabona)

Ataria jarriko da harremanetan




Nafarroa etorb. 13 behea • TOLOSA
670 41 79 22 • Tel./Faxa: 943 65 0313



NAIIRA
estetika zentroa

943 650 448 - 676 285 761
SAN FRANCISCO
PASEALEKUA, 35 • TOLOSA





VOLVO XC40 BERRIA

27.200 EUROTIK*

Sensus Navigation sistemarekin eta atzeraka
aparkatzeko distantzia kontrolatzeko kamerarekin.

GIDATU ZURE BIZI-ESTILOA

Ikusi autosuecia.es webgunean



#VolvoXC40

Kontsumo mistoa (l/100 km) 4,8tik 7,2ra; CO2 isurketak (g/km) 127g.tik 168 g.ra

Auto Suecia

**Jauregui auzoa, 76,
Hernani (Gipuzkoa)**

943 33 11 31

* Volvo XC40 T3 Base Premium Edition eskuzko auto abiadura aldagailua; penintsularako salneurria (Extremaduran izan ezik) eta Balear uharteetan 27.200 eurotik (BEZ, garraioa, fabrikatzailearen ekarpena, eta Kontzesionarioen Sarea eta matrikulatze zerga barne). Volvo Car Financial Services * markapean finantzatutako unitateen salneurria (Volvo Car Group) Banco Cetelem S.A.U. A-78650348-ren bidez, gutxienez 21.000 euro finantzatzeko. Gutxienezko iraupena, 48 hilabete. Gutxienezko egonaldia, 36 hilabete. S.A.U. Banco Cetelem-en onarpenari lotuta. Ikusten den modeloa ez da eskaintzako bera.